

2008ko apirilaren 3a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan

04

Unibertsitatea eta euskara ikerketa egin da Bortzirietan, eta horren arabera, ikasleen %52,5arentzat euskarazko eskaintza da unibertsitatea aukeratzean arrazoinagusia.



Xabier Elizalde Garferekin debuta

40

Iturengo atzelariak Garferekin profesionaletan debuta egin du. Martxoaren 16an jokatu zuen lehen partida Briviescasen (Burgos) eta irabazi egin zuen gainera.



JULEN ZELAIETA BERATARRA

03 Nafarroako bertsolari txapeldun berria



39,95€

Euskal Artzainak AMERIKETAN

6 DVD

{ 6 DVD kutxa bakarrean bilduak }

“Euskal artzainak Ameriketara” egitasmoarekin, Ttipi-Ttapa Fundazioak gizatalde honi buruzko informazioa jaso eta hedatu nahi du. Sei DVDtan banatuak, 80 pertsonen lekukotasunak biltzen dira, 2007ko uda hasieran AEBetako Kalifornian eta Nevadan zehar hiru astez egindako elkarriketak. Ibilbideari hasiera emateko, Bakersfieldeko (Kalifornia) euskal bestan egon ginen. Maiatzaren 27an izan zen hori. Mila lagun ingururen topaleku bihurtu zen Kern Count Basque Cluba. Gehienak baztandarrak, baina baita inguruko bertzeherrietatik joandakoak ere. Bakersfieldetik Fresno, San Frantzisko, South San

Frantzisko... eta Petalumara, eta hor, Euskal Etxeak antolatutako bertze besta baten lekuko izan ginen. San Frantziskoko Euskal Etxearen 25. urteurrenaren harira egindako besta izan zen Petalumakoa. South San Frantziskon, AEBetako Euskal Etxearen arteko txapelketaren lekuko izan ginen. Eta irabazleen artean, sunbildar bat. Eta Kaliforniatik Nevadara: Reno, Carson City eta Winnemucca. Bestarik handiena Winnemuccakoa izan zen, NABOk edo Euskal Etxeen konfederazioak bere urteroko biltzarra baitzuen Winnemuccan.

ttipi-ttapa fundazioa 2007

info@ttipi.net
www.ttipi.net

DATUAK...

- Julen Zelaietak (Bera, 1980) lehen aldiz jantzi du Nafarroako bertsolarien txapela. Martxoaren 15ean Elizondoko Lur dantzalekua jendez betea zegoela lortu zuen.
- Azken hiru txapelketetan hor aritu da: 2005ean eta 2006an hirugarren postuan gelditu zen eta ia, nerbioen ondorioz, bosgarren. Aurten, ordea, ametsa betetzea lortu du: txapela janztea.
- Gai xelebreetan ez ezik, serioetan ere asmatu zuen finalean. Kartzelako lanean hartu zuen bidea originala eta berezia izan zen.



Julen ZELAIETA *Nafarroako bertsolari txapeldun berria*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Sorpresa eman bidenabar gaiak serio hartuz ere saiatu nahi nuen»

Aitor AROTZENA

Txapeldun berria. Hausnartu duzu txapela zeureganatu duzula?

Bai. Lehenbiziko egunak mugituak izan ziren, eta gero hasi nintzen lasaitzen. Gai xelebreetan espezialista zarela erran da. Aurten, ordea, gai sako-nagoetan hobeki moldatu zara...

Umorera jotzen dudala erakutsia nuen eta hortan ongi moldatzen naizela. Nire hanka herrena gai serioetan nuen. Sorpresa eman bidenabar gaiak serio hartuz ere saiatu nahi nuen, eta finalerdietan ez, baina finalean lortu nuen. **Aurtengoa faborito argirik gabeko finala zen, baina beharbada finalaurrekoetako irabazleak zituen jendeak begi bistan...**

Nik banekien edozeinek irabazten ahal zuela. Finalerdietako saikapenari ez zaio kasu haundirik egin behar. Hiru saio desberdin dira eta puntuazioa ere aldatu daiteke eta ezin da konparatu. Nik gibelera utzi nituen borts, baina horrek ez zuen erran nahi finalean hori gertatuko zenik. Nik uste sei-zazpi baginela txapela janzteko moduan eta orain berriz eginen balitz gauza bera gertatuko litzateke.

«Nafarroako bertsolaritza ez da bi izenetara bakarrik mugatzen.

25 parte hartzaile ginen, eta finalean zortzi sartu arren, bertze sei ere sartzeko moduan ikusten nituen»

Silveira eta Estitxu Arotzena gabe maila apaldu ote den erran da, baina finala ongi joan zen.

Egia erran nire buruarekin nahiko lan izaten dut eta bertzeei ez diet kasurik egiten. Baina kartzelako lanaren tenorean joan den urteko finala baino hobea izaten ari zela komentatu genuen. Azkenean, helburua hori zen, zortziek osotasunean saio polit bat egitea. Nafarroako bertsolaritza ez da bi izenetara bakarrik mugatzen. 25 parte hartzaile ginen, eta finalean zortzi sartu ginen arren, bertze sei ere sartzeko moduan ikusten nituen.

Aitzinera begira, bertsolari gisa bizimodua aldatuko ote dizu txapelak?

Saio batzuk gehiago suertatuko dira: Bilboko bestetan, Lesakako Sanfer-

minetan, Iruñean... Eta Nafarroako bertsolaritza txapelduna bakarra dela pentsatzen dutenek antolatutako saio edo jaialdietara joan beharko dut. Aunitzez ere saio gehiago izanen ditudan ez dakit, eta ez dakit nahi dudan ere. Denbora denetarako behar da, eta bizitza ez da bertsoa bakarrik.

Eskaintzaren orduan urteotan lagundu dizutenei eskaini zenien. Zein izan dira bertsolari munduan zuretzat oinarri izan direnak?

Hasieran Bittor, Manolo eta Estitxu, irakasle izan ditudanak. Entrenamenduetan ibiltzen garenak ere bai: Jon Barberena, Jon Elizetxe... Bertso eskolan ibiltzen ginenak: Erika, Terre, Alaitz... Denok talde bat osatzen dugu. Orain ere batzuk kanpoan utzi ditut nahi gabe, eta finaleko egunean ere gauza bera gertatu zen. Betidanik izan dut duda hori, txapeldun izatera zein bertso botako ote nuen denak kontent uzteko. Eta agurra bota nuenean saioz-saio ibiltzen garen herri finko batzuk ere aipatu nahi nituen gurekin sinisten dutelako, baina joan egin zitzaidan: Donamaria, Beuntza... Norbait ahan-tzi baldin badut, sentitzen dut.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan 2007 ikerlanaren aurkezpen egunean, ezkerretik hasita, Iñaki lurrebaso ikerketa egin duen Aztiker Jendarte-ikerketak aplikatuak enpresako soziologoa; Ainara Maia Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakaria eta Arantzako alkatea; eta Urko Ikardo Euskara Mankomunitateko teknikaria.

Nafarroan euskarazko unibertsitate eskaintza haunditzea eskatu du

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK

Unibertsitateetan ikasketa guztiak euskaraz egiteko aukera ez dago bermatua. Ikasle aunitzek euskaraz eginen litzuzke ikasketak, baina hautatu dituzten ikasketak direla-eta, ikastegiak ez badio horretarako aukerarik ematen, nekez eginen du hori. Horixe gertatzen zaie Bortzirietako ikasle aunitzeri. Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimenez, Aztiker Jendarte-ikerketak aplikatuak enpresak egin duen ikerketak hala dio. 2000tik 2006ra batxilergo titulua erdietsi zuten Bortzirietako gazteei galdeketa egiten aritu zen aipatu enpresa joan den urteko abuztuan. 252 ikasletik 238k erantzun zioten inkestari, eta galdeketa hartatik ateratako ondorioak ezagutzera eman zituzten martxoaren 13an Etxalarko Kultur Etxean egindako aurkezpenean. Urko ikardo Bortzirietako Euskara Mankomunitateko teknikaria, Ainara Maia Mankomunitateko lehendakaria eta Arantzako alkatea eta Iñaki lurrebaso ikerketa enpresako soziologoa izan ziren ekitaldian. Emaitzak ikusita, eskaera argia luzatu diote Nafarroako unibertsitate eta hezkuntza arduradunei: «euskarazko unibertsitate eskaintza haunditzea».

Gurutze PIKABEA

Bortzirietako ikasleen erdiak baino gehiagok erabakitzen dute unibertsitate joatea, eta horietatik gehienak Euskal Herrian gelditzen dira, baina Nafarroatik kanpo. Bortzirietako unibertsitateen %16ak bakarrik ikasten dute Nafarroako unibertsitateetan. Baina zergatik? Bortzirietako ikasle gehienak euskaldunak izaki, euskaraz ikasi nahi dute, baina Nafarroako unibertsitateek ez dute halako eskaintzarik bermatzen. Halaxe dio *Unibertsitatea eta euskara Bortzirietan 2007* ikerketak.

Euskara irizpide garrantzitsua da borts herrietako ikasleentzat. %52,5arentzat euskarazko eskaintza da unibertsitatea edo ikastokia aukeratzeko arrazoi nagusia, eta horietatik %40,2k hartzen du hori kontuan. Bortziritarren nahia euskaraz ikastea dela argi utzi du ikerketak. Izan ere, inkestaren arabera, ikasleen %69,2k

Ainara MAIA *Bortzirietako Euskara Mankomunitateko presidentea*



Zein da ikerlanaren helburua?

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen helburua gizarite bizitzako arlo guztietan euskararen normalkuntza lortzea da, eta herritarrek euskara erabiltzeko eskubidea babestea. Unibertsitatearen eskalduntzea hagitz gibelerratu dagoela bistan da. Azken urte hauetan ikasle guztiek Dereduan egin dituzte euren batxilergoko ikasketak. Toki guttitan izanen da %100eko matrikulazio portzentajea batxilergoan. Baina egoerak zeharo okerrera egiten du bertako ikasleek euren ikasketak euskaraz jarraitu nahi dituztenean, eta unibertsitatera jo-

an behar dutenean. Ikerketak gabezia hori islatzen du eta gure aldetik euskarazko unibertsitate irakaskuntza kalitatezkoa eskaintzea dagokiela oroitarazi nahi diegu Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari eta Nafarroako Unibertsitateari. Oraingo honetan, ordea, eskaera Bortzirietako gazteen unibertsitate aukera ikertu ondok egiten dugu, haien nahiak argi erakusten dituzten datuak esku-artean ditugula. **Ikasleek euskarari garrantzia ematen diotela erakusten du ikerketak...**

Bai, Bortzirietako ikasle gehienek euren ikasketak euskaraz segitu nahi dituzte, eta eus-

karaz ikasi ahal izateak pisu handia izan du ikasketak egiteko aukeratzeko. Hori pozteko arrazoia da, gazteek euskarari prestigioa eta balore funtzionala aitortzen diotela erakusten baitu horrek.

Datuak esku-artean, orain zer egingen duzue?

Gai honetan ardura duten erakundeei bi eskaera luzatu dizkiegu. Batetik, unibertsitate ikasketak euskaraz egiteko eskubidea bermatu dezatela, eta euren eskaintza egokitu eta eskaldundu dezatela; eta bertetik, eskalduntze neurriak berehala abia ditzatela, ikasketak aukeratuenetatik hasita, euskarazko eskaintza kalitatezkoa osatu arte. Horrez gain, gonbidatu nahi ditugu Nafarroako gainerako udal eta mankomunitateak antzeko eskaerak bidera ditzaten.

«Unibertsitate ikasketak euskaraz egiteko eskubidea bermatzeko eskatzen dugu»

euskara hutsean egingen litzuzke ikasketak eta %13,1ek gehiena euskaraz. Aintzat hartzekoa da Bortzirietako ikasleen herena hobeki moldatzen dela euskaraz gaztelaniaz baino. Gainerako %1,5ek soilik dio gaztelania hutsez ikasiko lukeela.

Egoera zein den ikusita Bortzirietako Euskara Mankomunitateak unibertsitateek euskara eskaintza handitu dezaten eskatu die Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari (NUP) eta Nafarroako Unibertsitateari (NU).

Bortzirietako ikasle gehienek euren ikasketak euskaraz segitu nahi dituzte. Eta Ainara Maiak erran zuenez, «hori pozteko arrazoia da». Gazteek euskarari «prestigioa eta balore funtzionala» aitortzen diotela. Baina aldi berean, «egoerak zeharo okerrera egiten du euren ikasketak euskaraz jarraitu nahi dituztenean, eta unibertsitatera joan behar dutenean».

«Bereziki kezagarritzat» jo zuen Maiak Nafarroako unibertsitateen egoera, horietan euskararen presentzia «hutsaren hurrengoa» delako. «Alde ederra dago nahiaren eta egoeraren artean. Hortaz, horretara egokitzeko neurriak ezinbertzekoak eta presazkoak dira, eta ez dago arrazoirik horiek ez hartzeko, edo gibelertzeko». Eskaera argia, beraz: «unibertsitate ikasketak euskaraz egiteko eskubidea bermatu, eta eskalduntze neurriak berehala abiatu».

Lorea FLORES

Biologia ikaslea EHU



«Ikerketak egitan dagoena erakusten du, ofizialki erraten dena eta errealtatea desberdina baita».

Euskaraz egiten ahal nuelako erabakien Biologia ikasketak Bilbon egitea. Iruñean Opusean bakarrik dago Biologia ikasteko aukera, eta familia Iruñean dut, baina azkenean garestiagoa aterako litzaidakeelako Bilbora joan nintzen. NUPn euskarazko eskaintza izatera, seguruenik harat joanen nintzateke. Euskarazko unibertsitate eskaintzan gabezia dago, dudarik gabe. Nahiz eta ofizialki datuak modu batera adierazi, ez da horrela. Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ikerketak egitan zer dagoen erakusten du, entzuten dena eta errelitate desberdina dela, alegia. Datu horiek argitaratzeak nolabait presioa egiteko balio dezake unibertsitateetan.

Ainhoa RETEGI

Herri Lan Ingeniaritza EHU



«Euskarazko unibertsitate eskaintzan gabezia dago eta nik behinik behin handia nabaritu dut»

Hemen inguruan Herri Lan Ingeniaritza ikasteko aukera bakarra Donostian dudelako joan nintzen Donostiara. Bertzela kanpora joan beharko nuke, baina hala ere, irakasgai gutti ditut euskaraz, lehengo urtean bat edo bi eta aurten ere berdintsu. Ni hobeki moldatzen naiz euskaraz, bizitza guztian ikasketak euskaraz egin ditulako. Gaztelaraz egitea hasieran pixka bat kostatu zitzaidan, bastez ere, matematikan eta halakoetan hitz tekniko guztiak euskaraz ikasi ditudalako. Euskarazko unibertsitate eskaintzan gabezia dago eta nik behinik behin handia nabaritu dut. Titulazio berria da nireta eta poliki-poliki ari dira jartzen, baina aunitz kostatzen ari zaie.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Ene lertxun

maitia:

Nik maite zaitut, izaki biziduna zarelako, Naturaren alaba zarelako, berari eta ez bertze inorri, kaso egiten diozualako, jatera Nik ematen dizudalako, zarena zarelako.

Nik maite zaitut, zure hegaldi dotoreengatik, zure moko zorrotzengatik, zure ehizaldi baketsuengatik, zure zango luzeengatik, zarena zarelako.

Niri ez zait inporta, kilo erdi amuarrain jan behar baldin baduzu bizirik irauteko (nireak dira, Nik hazituak, Nik bizia emanak), egunero Nire Baitan somatzen bazaitut egin behar duzuna egiten baduzu.

Horregatik, ene Lertxun maitia, ez kontutan hartu aurreko Ttipi-Ttapan arrantza batek idatzitua. Badira berarekin bat ez datozenak, naturaz gozatzeko natura esplotatu behar ez dutenak, ezer hartu gabe maitatzeko prest daudenak. Amuarraina arrantza eskubide bat ez dela uste dutenak.

Nik ezagutzen ditut horrelakoak... Hauek ez dizute egurra emango, ezta ubarroi «maltzurrei» ere. Beno, NIK behintzat ez, Lertxun maitia.

**Joxean Ortega
Igantzi**

Kofrade bakoitzak

bere argizaria har

dezala

Egiardia, gezurosoa. Nahiko zabaldua dagoen ohitura bat dago: zerbait gaizki ateratzen bada, erruduna bilatu behar da, baina beti berteen tartean, eta ez bere buruari begiratzuz, erruaren geure zatia aitzortzeko.

Kirolegiaren ondoren dagoen etxe konfliktibo horri buruz ari gara solas egiten.

EA, PNV eta Aralarrek emandako prentsaurreko batean euren eskuak garbitu nahi izan dituzte astakeria honetan. Eta nori bota errua? Josu Goiari. Hemen dator lehenbiziko egiardia.

Egia da Berako hirigintzako araudien «behin behineko onarpena» Berako Udaleko alkatea ni nintzenean egin zela. Baina gu minorian ginen, bortsordezkariekin. EAK lau zituen eta PNVk bi. Zergatik estaltzen dituzte datu hauek?

EAKoa alkate zenean, Nafarroako Gobernuak behin betirako onartu ondoren, Udalak «refundidua» onartu zuen (2004-07-05). EA eta Aralarren botoekin eta independenteen abstentzioarekin. Orduan ni ez nintzen Udal horretan. Zergatik estaltzen dute datu hau ere? Zer gertatuko litzateke zinegotzi guztiek araudien kontra boz-

katu balute?

Zergatik ez zituzten zuzendu gauza batzuk zonalde horren hirigintzako araudien aldaketak egin zituztenean? (etxebizitza gehiago sartu, nahiz eta bolumena ez handitu, zonalde honi zegokion babes ofizialeko etxebizitzak, eperik gabe, bertze sozialdera pasatu, altuera).

Gure errua zein zen? Konfidantza sobera garai horietan zeuden teknikoengan. Guk arkitektoei erran genien zer nolako herria nahi genuen. Behin behineko araudien aprobazioa egin genuenean ez zuten isla-tu guk nahi genuena. Engainatuak sentitu ginen. Zehazki, leku horretarako guk nahi genuena hau zen: bertze bloke bat, lehengo bien antzekoa, baina bertze aldera paratua. Baita ondoan dagoen baratzeari eta txabolarri bolumena ematea ere (lehen ez zuten), partzela nagusian. Horretarako blokea zerbait handiago izan behar zen, baina baratzea eta txabola publikoak gelditu behar ziren, bideak zabaltzeko.

Norbaitek pentsa lezake gu hain tontoak girela bolumen hori emateko txabolarri eta baratzeari, eta gero 73 m² kenduta, gainerakoa esku partikularretan uzteko?

Guk behin behinik aprobaturako astakeria horretaz, ez sektoretan barne, 2006ko martxoan enteratu nintzen. Hurrengo Udaletik inork

ez zigun abisatu. Gauak eman nituen ezin loak hartuz. Gertatutakoa ezin sinetsiz.

Argi dago guk behin behineko araudiak onartu ondoren, Nafarroako Gobernuak ere behin betikoz onartu zituela eta hurrengo Udalak «refundidua» onartu zuela. Txarrak baldin baziren araudiak zuentzat, onartu beharrean zergatik ez zenizkioten bueltatu Nafarroako Gobernuari? Denei pasatu zitzaigun araudien astakeria hau eta bertze batzuk. Zergatik naiz ni bakarrik erruduna—eta honekin bi aldiz egiten diot kritika nire buruari—? Bertze guztiek zergatik kritikatu dituzte bertzeak bakarrik?

Nire ustez araudian oker batzuk zuzendu zitzaizkete. Baina ni nengo Udalarri ez zitzaion inongo proiekturik ailegatu. Baina zuen Udalarri ailegatu zitzaion proiektu espekulatuak eta itsusi hori. Zer egin zenuten proiektua zuzentzeko edo hobetzeko? Bakarrik, erran, orain bezala, dena legekoa zela eta partikularren artean zegoela arazoa. Zeinen modu polita zuen eskuak garbitzeko...! Uste dut gauza aunitz zegoela zuzentzeko, lege aldetik ere, borondatea baldin bazen, baina ez naiz xehetasunetan sartuko...

Bertze aldetik, gure Udalak araudien aitzin-proiektua bi aldiz paratu zuen publikoki. Beharrezkoa behin baka-

• IRAKURLEAK MINTZO •

rrik egitea izan arren.

Gure Udalaren hirigintzako batzordeak herriarentzat zer baita aportatu nahi zutenentzat guztiz irekiak zeuden (ez zuek bezala: batzuk irekiak, bertze batzuk itxiak... hirigintza gaitan). Beran dauden arkitekto guztiek parte hartu zuten, eta bertze pertsonak ere bai euren ideiak aportatzen.

Hirigintzako araudiak herriak egin behar ditu. Horregatik, horien erakusketak publiko egiten bada, jende guztiak arduratu beharko luke, guttienez bere zonaldekoa nola geldi daitekeen ikusteko. Eskubide hori ez erabiltzeak —obligazioa ez errateagatik—, astakeria hau gertatzea dakar. Ondoko bizilagunek ere badute beren erruaren zatia, bere garaian utzikeria hura egiteagatik. Guri bezala gertatu zitzaizen: inoiz ez zuten espero halako astakeria eraiki zitekeela lur horretan.

Eta zer pasatzen zaie nirean ez, baina hurrengo Udalean sartu zirenei? Udalean sartu baino lehen herriko hirigintza ez zitzaizen axola? Non zeuden beren aportazioak edo alegazioak egiterako orduan? Ni zinegotzi izan ala ez, Berako hirigintzako araudi guztietan zer baita aportatzen egon naiz.

Ez dut sartu nahi bertze errudunekin, baina izan badira. Kofrade bakoitzak bere argizaria har dezala eta bere buruari kritikatu behar dionak... egin diezaiola, eta ez erran erdi egiak, izugarriko gezurrak direlako, euren errua bertzeei pasatzeko. Pertsona guztiok hanka sartzen dugu aunitz aldiz. Hori onartzea zintotasunez jokatzeko da. Hori ez egitea, ez ... Bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Josu Goia

Errespetugabeak

Aldizkari honen 466. emanaldian Funverako ELAK dioena irakurri ondoren harrিতта geratu naiz. Ni ere Funverako langilea naiz eta uste dut argitu behar direla ELAK erratan ez dituen hainbat gauza.

Bertan ELAK dio langileen gehiengoak batzar orokor eta erabakigarri batean bozka sekretuaren bidez onartu zuela hitzarmen berria eta ondorioz alda-txandan lan egin behar izatea langile guztiok gutxienez datozen bi urte hauetan. Baina gorde egiten du beraien hankasartze galanta baten bidez alda-txanda hau hitzarmenaren barruan kokatuta geratu dela enpresaren desioari amen eginez, hain zuzen, beraiek (ELAKoak) ez direlako gauza izan bi gai hauek (hitzarmena eta alda-txanda) bereiztuak negoziatzeko, nahiz eta Enpresa

Batzordeak zentzu horretan erabakia tinkoa aurrez hartuta izan. Ez dute erratan ere, hankasartze horren ondoren informazioa manipulatu ari direla etengabe; zabalduz adibidez: ez zegoela bertze aukerarik eta hitzarmena alda-txanda barne onartzen ez balitz enpresak inposatuko lukeela berak negoziaketa hasieran adierazitako baldintzarekin. Ez dute ere erratan, finko egin gabe geratu direla bi langile (nahiz eta horretarako antzinasun nahikoa izan), ELAK sinesgarritasun gehiago eman duelako enpresaren hitzari bi langile hauenari baino; lotsagarria! Ez dute erratan ere, finko egin beharreko langileen zerrenda jaso bezain pronto langile hauei afiliazio orria ematera joan zirela, erranez gainera soilik ELAri esker finko egin behar zituztela; tamalgarria! Adierazitako hau guztia larria baldin ba-

da ere, larriagoa da hasieran aipatutako batzar erabakigarri horretan ELAK ez zuela langileari zalantza edota ikuspuntu desberdinak adieraztea utzi; lotsagarria eta penagarria da bere burua ezkertiar sindikatu bat dela dioen ELAK, langileak duen eskubiderik oinarrikoena horrela zapaltzea; ez al da hau gehiegikeria? Gutxienezko errespetua edota seriotasuna balute berehala utzi beharko lukete Enpresa Batzordea ELA-Funverako kide guztiek, batzuk gehiegikeri honen egileak izateagatik eta gaitzetzekoak egile hauei babesa emateagatik.

Joxe Mari Telletxea
Funverako langilea

BERA Zere inguruak klase guztietako insektuz (samorra, zinoarra, orniarra, kukuxu...) eta errotoi zurgutsez garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zabal, 42 A • BERA

HERBIBO
ETXEBE
EGONTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE

T: 0559542519
Maïxan eta Véronique

KABA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ERROTAZAR
harategia

Bertako produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088



BERAKO UDAL HAUR ESKOLAN
2008-2009 IKASTURTERAKO
AURREMATRIKULA EGITEKO
AUKERA ZABALIKI!!!!
APIRILAREN 1etik 30era

• Informazio gehiago:
Berako Udal Haur Eskolan
Eztegara pasealekua, 42
Tel/Fax: 948 631 656
e-posta: berakettikiak@begirs.com

KULTURA

Eskualdeko gaztetxoak Haur Kantari Jaialdien azken saioan

Goizueta, Bera, Leitza, Doneztebe eta Baztango ikasleak

ttipi-ttapa

Hilabete batez kantuan ibili ondotik, martxoaren 16an egin zen Iruñeko Gaiarre antzokian Haur Kantari Jaialdien azken saioa. Aitzineko aldietan nabarmendutako partaideak izan ziren Iruñean eta tartean eskualdeko hainbat. Txikien mailan Goizueta eta Berako Jesusen Bihotza Ikastetxeko lagunek parte hartu zuten. Oihane Zugarramurdi eta Ainhoa Zabaleta goizuetarrek *Topa dagigun* Oskorriren abestia kantatu zuten, lehena djenbearekin eta bigarrena gitarra akustikoarekin zirela. Gainera, ausardiaren aipamena jaso zuten.

Jesusen Bihotzako Axuriak taldean Ane Etxegarai, Sara Telletxea, Mirari Etxepare, Mattin Irigoien, Idoia Bertiz eta Garbiñe Otxotekok kantatu zuten, Maria Barredo pianoarekin lagun zutela. Betizu taldearen *Oholtzara* abestu zuten, eta trebetasua



ARGAZKIA: JUAN ANTONIO GARAIKOETXEA

Baztango Ttuku-ttuku taldeak Aitorren hizkuntz zaharra aukeratu zuen.

nagatik aipamena eskuratu zuten.

Gaztetxoaren kategoria ere izan zen eskualdeko jendea. Leitza Naia Barriola bakarlanetan aritu zen eta *Iraganean* kantatu zuen. Musikarekin laguntzen Ander Perurena (gitarra), Garikoitz Etxeberria (djenbe) eta Josune Gerra (teklatura) izan zituen. Leitzarrak ahotsaren aipamena jaso zuten.

Doneztebeko Musika Eskolak ere bikotea

aurkeztu zuten. Sara Apeztegia eta Nerea Matxinena Sugan taldearen *Itxura garestia* abestiarekin igo ziren taula gainera, eta Garbiñe Olazar eta Ainhoa Garziarena gitarrarekin, Unai Urroz bateriarekin eta Nerea Telletxea teklaturekin izan zituzten lagun. Malerrekako bikoteak konplizitatearen aipamena eskuratu zuten.

Azkenik, Baztan-Leizarozko Ttuku-ttuku taldearen txanda izan zen.

Iratxe Arretxea, Aina Onsalo, Idoia Garmendia, Amaia Istilart, Maria Etxegoien, Jone Kamino, Intza Gartxitorena eta Amaia Bertizek osatutako taldeak *Aitorren hizkuntz zaharra* abesti herrikoia kantatu zuten. Musikari lanetan, berriz, ondoan izan zituzten Izaskun Igoa eta Uhaina Apeztegia (trikitixa) eta Ainhoa Astiz (panderoa). Baztandarrak kantaera tradizionagatik jaso zuten aipamena.

BERTSOLARITZA

Bertso udalekuetan izen emateko epea zabalik dago

ttipi-ttapa

9 urtetik 18 urtera birtarteko bertsozale gaztetxoei ongi pasatzeko aukera ezin hobea eskainiko die aurten ere Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak. Bertso udalekuak egiten dira Euskal Herri mailan, eta gehienak uztailean egiten badira ere irailean ere izanen da aukera. Udalekutarako hautatuko txokoak Ligi-Athei (Zuberoa), Eulate (Nafarroa), Aubixa (Elgoibar, Gipuzkoa) eta Zuhatzara (Araba) dira. Ligi-Atheiko eskaintza 9-12 urtekoei bideratua dago eta bi txandatan egiten dira udalekuak: uztailean 1etik 6ra eta 7tik 12ra. Eulaten 12-15 urte artekoek izanen dute lekua, eta lehenbiziko txanda uztailearen 7tik 16ra egiten da eta bigarrena 18tik 27ra. Aubixako eskaintza 15-18 urte artekoek dago zuzendua eta uztailearen 10etik 19ra zabalduko ditu atak. Zuhatzan, berriz, 10 eta 12 urte arteko haurrentzako egonaldia antolatuko da, eta irailaren 2tik 5era egiten ahal izanen da hori. Izena emateko www.bertsozale.com en edo 943 217798 telefonora deituta.

Ituzia
HIDROTERENTZIA
HIDROJENBERA
FERMIN MALLATZENA
LARRALDEA

MERTZERIA
Lentzeria
LENTZERIA
Tel: 948 625 232
Berriz Plaza, 10 - LESAKA

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Goya
Alzate, 5 - Tel: 948 630 055

arkitektoak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D
ELIZONDO - Santiago, 54 behea • 948 581 931
BERA - Eztegarra, 8 behea • 948 625 232



IPINGI

- Arropa formalak eta informalak
- Komplementuak • Bitxiak
- Fekundantziaren materialak

Santiago, 88 • ELIZONDO • 948 580 939

PIKABEA MUJER

Karrika nagusia, 5
Elizaren ondoan
Tinoa: 948 450 207
DONEZTEBE

OSIÑA
Jantzidenda
Bitxiak

Albiztur, 3 beheko • LESAKA • Tinoa: 948 837 951

Udaberria ailegatu baino lehenago hasten dira arropadendak prestaketa lanetan. Udaberriko arropa, erraterako, neguko merkealdia bukatu orduko paratzen dute erakusleihotetan. **Elizondoko Ipingi arropadendan**, konparaziora, otsailaren erdi aldera jarri zituen udaberri honetako jantzi berriak Axun Irigoienek. Udazkenekoak, berriz, irailaren lehendabiziko edo bigarren astean paratuko ditu.

EMAKUMEAK


60-70. hamarkadako estiloa berreskuratuko du emakumeak udaberri honetan

Dendariak arropak hautatzeko bide diferenteak erabiltzen dituzte. Marka etxeek egiten dizkieten eskaintzei erreparatu, edo azoka haundietara joan eta interesatzen zaiena aukeratu, bertzela. Edonola ere, udaberriari sartuak gara eta sasoi honetan nabarmenduko diren joerak zein izanen diren eza-gutzeko aukera izanen duzue hurrengo lerroetan.

Jantzi dotoreak ikusiko dira, mauka motz eta belaunetara ailegatzeko diren gonak tartean direla. Enkajeak eta parpailak edo puntillak ere modan jarriko dira. Hankaren erdi parera edo bailaunaren bukaerara ailegatzeko diren soinekoek garrantzia hartuko dute, baita zabaltasun haundiko gonek ere. Neska gazteek gona motzen aldeko hautua egiten dute. **Elizondoko Fantxiken** azaldu digutenez, *"aurten soineko laburrak datoz, galtzen gainetik jantzeko"*. Egun bereziei begira, berriz, soineko arin eta erosoak salduko direla erran digute **Irungo Lulu jantzidendan**, loreen estanpatuekin. Edozein arroparekin konbinatzeko jakak ere ikusiko dira. Gainerakoan, marinelen mar-radun estiloa ere indartsu etorriko da. Vichy laukidun estiloa ere eramanen da.

Galtzetan bermudak nagusituko dira. **Lesakako Bixkiak** jantzidendako Rosa bat dator horrekin, bere hitzetan *"galtza piratak guttitu egin baitira"*. Dena den, udarako piratak "arras ongi saltzen" direla aitortu digute Fantxiken. Eta Irungo Lulun ere *"erosotasunagatik piratak hagitz erabiliak direla"* erran digute.

Koloreei dagokionez, zuria eta beltza nagusituko dira. Beige-ak eta grisa ere ez dira urruti ibiliko. Eta hortik aparte, berdeak (pistatxo eta pastel kolorea, esmeralda eta ur kolorea), lila, arrosa, gorria eta laranja ere. (→)



Telefono gida berritzen hasiak gara!
 bazter, bertzelarria, burtxinak, litzaketa
 maileak eta urdazkako telefono guzaki!

zure publizitatea
 sartu nahi baduzu,
 deitu 948 63 54 58ra

Belzunequi
 DESDE 1901

Jaime Urutia 44. ELIZONDO • Tfno: 948 510 056

HONORIO TABERNA
 Merkataritza karrera, 29 • DONOSTIA
 Tfno: 948 450 100

GRASAME ETA
 BAKOIMEENDAKO
 BOUTIQUE

Lulu 38tik 64a
 bitarteko neurriak

Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik • IRUN
 Tel. 943 616 165

TABERNA ZAHARRA
udazken-neguko moda
Merkatarien k. 11 • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 007

Gizon eta emakumezako arropak • Kortiak eta etxeko arropak

Udaberri-udako moda
Jantzi eta osagarriak

BASALRE

Eztegara, 22 behea esk. • BERA • 647 510 444

Benta Mirentxu
eta Benta Biok - Ibardin

Prezio apalketak

Zelulitisaren aurkakoetan
spirilean eta maiztean

Clarins,
Dior,
Lancôme,
Clinique...

Lurrin kutxetan
Amen bestakari

Marka guzietan



(→) Osagarriei dagokienean, durbante, lastozko kapel eta poltsa, gerriko mehe, belarritako, egurrezko bitxi eta oinetako erosoan erabilerara nabarmendu dute adituak. Ezaugarri hippie eta etnikoek ere garrantzia izanen dute: lastozko tiradun sandaliak, irudi indioak eta bordatuak oinetakoetan... Garai batean hagitz erabiliak ziren perladun lepokodunak ere berriz ikusiko ditugu.



Eta udarako... diseinu ausarteko bikini eta bainujantziak

Eta uda ailegatzearekin batera, bainujantzi zein bikini ere beren txokoa izaten dute armairuan. Era, kolore eta gustu guztietakoak aurkitu ditzakegu gaur egungo merkatuan, eta gustuko zerbait aurkitzea izaten da ohikoena.

Dena den, hondartza eta igerileku bazterretan aurre ikusiko ditugun bikini eta bainujantziak eskote eta diseinu ausartekoak izanen dira, estanpatu bizi eta alaiekin konbinatuak. Loredunak edo leopardo estiloak nagusituko dira, batez ere. Bikini eta bainujantziez haratago, bertzelako osagarriek ere euren garrantzia izaten dute. Hala nola, pareoak, blusak eta tuniak. Luzeagoak edo laburragoak, gardenak edo ez, kolore batekoak edo bertzeakoak. Aukera zabala aurkituko dugu dendetako apaletan. Hondartzara edo igerilekura joateko kapela eta zorroen kasuan, eskaintza ez da hain zabala, baina kolore batekin edo bertzearekin jokatuz konposizio atsegina lor daiteke.



GIZONAK

Agur pitiloei, galtza zabalak daude modan



Gizonentzako estilo berria iragarri dute uda eta udaberri honetarako adituek. Hala, alde batetik, motorzaleen jaka maiz ikusiko dugu, papar haundiekin eta kremailera alde batera duela. Ibilgailuen munda alde batera utzi eta eguneroko jantzi izatera igaroko da jaka hori. Horrekin batera, *trench*a ere ez da desagertuko, kolore biziekin gainera.

Galtza zabalak eta ator estuak ikusienak izanen dira, galtza pitilloak alde batera geldituko baitira. Galtza piratak txalekoekin eta atorrekin jantziko dira.

Ator estuak eta txalekoak ere aukeran

Berako Martutzak dendan gizonak ere modari gero eta gehiago begiratzan diotela antzeman dute. Eta aurten, "*ator eta poloen arteko nahasketa direnak jantziko direla azpimarratu digute, estanpatuekin*".

Irungo Capelletin, berriz, ehun erabiliaren zein izanen den azaldu digute: "*algodoia da alkandora eta kamisetetan gehien eramanen dena*". Galtzetan, ordea, bakeroak nagusi. %80an bakeroak izanen omen dira. Hauek iaz baino pixka bat estuagoak omen datoz.



KAPRITXO

Eibarren 19, LEITZA • 948 510 994

Martutzak

Bera
berutik hanketarrino

Ertegora pasalekua, 12
31780 BERA
Tel: 948 63 14 25

Benta Mirentxu
eta Benta Biok - **Ibardin**

Jauntzi kolekzio berria iritsi da!

Burberry, Diesel, Replay, Lois, Puma, Pepe jeans, Tommy...

HAURRAK

Jantzi erosoak, praktikoak, koloretsuak, helduen joeretara hurbiltzen diren estiloekin

Polainak, konjuntxoak, pitxiak eta petoak dira aurtengo uda eta udaberriari begira, haur jaioberrientzako proposamen nagusiak. Umearentzat erosotasuna eta gurasoarentzat praktikotasuna ematen duten arropak dira, eta aukera ugaria denez, momentuaren arabera bat edo bertze aukeratu daiteke.

Saltoka, lasterka edo jostetan hasten direnerako umeentzako praktikotasuna eta erosotasuna da seme-alabentzat jantziak erostean gurasoek bilatzen dutena. Horrela azaldu digute **Doneztebeko Ibarrola jantzidenda**. Hala ere, *"nesken kasuan batez ere, diseinuari eta koloreei ere aunitz begiratzeko omen zaie. Helduen joerara gero eta gehiago hurbiltzen ari omen dira umeen arropak"*.

Eta koloreak? *Zilarra, zuria eta beltza.*

Argi dago zuria eta beltzak garrantzi handia izanzen duela umeen jantzietan.

Elizondoko Mari Carmen dendan

hiru kolore nagusi aipatu dizkigu:

"zilarra, zuria eta beltza".

Baina horrekin batera, *"laranja, berdea, urdina eta arrosa"*



Haurrendako behar duzun guztia



Jantziak, tiberolak, okupenak termokak, nekezera pertzi ekologikoak haurrak erantsako modolak bandoleroak, fularrak...

Produktu naturalak

bittiriá, 40 LESAKA 948 637 523





ere gustuko dituzte Mari Carmenen, eta halako arropak eskuratzeko aukera eskaintzen du.

Irungo Mirentxu arropadendan neska eta mutikoen estiloen berri eman digute: *“mutikoentzat lihozko jantzi aunitz ikusiko da, kirol estiloko kazadorak eta maho deritzon lepoaldea duten jantziak. Piratak, mar-radun galtzak”* ere nabarmendu dizkigute Mirentxun. Eta *“neskatan, berriz, zuria zilarrarekin edo beltzarekin konbinatutako soinekoak. Oinetakoetarako arroparen koloreari ongi dagozkien bailarinak. Gona legginsekin ere ikusiko ditugu neskatilak aur-tengo udaberri eta udan. Italiar eta daniar moda”*, Mirentxuren iritiz.

MARI CARMEN
Arropa
KONFEKZIOAK

Braulio Iriarte 22 • (Antelonas ondoan)
ELIZONDO
Tfnoa: 948 560 883

FANTXIKE
Mertzeria • Opariak • Lentzeria
HAUR, GAZTE ETA HELDUEN ARROPA
Jaime Urrutia 15, ELIZONDO • Tfnoa: 948 560 312

m irentxu

- **Markarik onenak:** Boboli, Schuss, Paz Rodriguez, Chupa chups, akr
- **30 marka baino gehiago, prezio guztietakoak**
- **Bertan eskuz egindako soinekoak**

Sorapio Mugika 15
943 618 033 • MUV

Ordizia kalea 5
943 831 278 • ORDIZIA

Kalotxa.
Zapatadenda.
 Osagarriak. Konponketak.
 948 631516 **Bera.**



EL NATURALISTA



OINETAKOAK

Zuri-beltzaren indarra oinetan ere. Emakumezkoenetan txarola eta gizonezkoetan larrua



Dagoeneko, gure oinak janzteko proposamenez bete-ta daude erakusleihu guztiak. Udaberri-uda honetako oinetakoez ari gara, hemendik guttira soinean izanen ditugunak.

Emakumezkoetan joera zein izanen den galdetuta, **Lesakako Txinelka zapatadenda**ko Mertxek larru bernizatu edo txarolezko oinetakoak aipatu dizkigu. Larru bernizatuak ez dira modatik aunitz urruntzen, eta aurten ere ikusien artean egonen dira. *"Beltzak, zuriak, zuriak eta beltzak, edo urdin ilun kolorea dutenak"*. Kolore horiek gomendatu dizkigu Mertxek.

Eta nola ez, manoletinak! Batez ere, erosoak direlako bihurtu dira hain erabiliak eta uda honetan ere ez dira aparte geldituko. Takoidun oinetakoak aukeratzekotan, berriz, takoi lodi edo kuña modukoak nagusituko dira, eta aitzinaldea zabalik dutenak.

"Gizonezkoetan larruzko oinetako goxo eta guriak gailenduko dira". Hala erran digu **Berako Kalotxa zapatadenda**ko Adelak. Sport Casual deritzon estiloa aunitz erabiliko omen da, bidaietan eta egun guztian erabiltzeko oinetako erosoak, hain zuzen. Adelaren arabera, *"hori batez ere gazte jendeak erabiltzen du"*.

Jantzietan, eta emakumezkoen oinetakoetan bezala, gizonezkoetan ere zuri eta beltzaren arteko konbinazioa nabarmendu digu koloreetan. Edozein kasutan, kolore lisoa ikusiko dugu, eta zuri eta beltz gain, beige argi eta ilunagoa izanen dira aukeran. *"Ausartean kolore metalizatua aukeratuko du"*.

Gure inguruan zapata janzteko ohitura gutti dagoela argitu digu Adelak: *"Hemen gazteek adin bat arte olanazko oinetakoak (lonak) eramaten dituzte, zapatarik ez. Ezkontzetarako erosten dira hemen zapatak"*. Halere, momentu jakin horietarako diseinu atsegineko larruzko zapatak aurkituko dituzte gizonezkoek Kalotxan.

Doneztebeko Ostiz Etxean kirol oinetakoetan joera zein izanen den azaldu digute. Neguko estiloarekin bat eginen omen du, baina *"zola hobearrekin eta ehun transpiragarriekin"*. Koloreetan zuria eta beltza nabarmendu digute Ostiz Etxean ere, baina baita laranja eta berdea... ere. *"kolore azidoak"*.

txinelka
 ZAPATADENDA
 UDABERRI-UDAKO MODA
 Haurrak • Gaztekoak • Helduak
 Gizon eta emakumeentzat
 LARUNBAT
 ARRATSALDEAN
 IREKIA
 Arretxea, 20 • LESAKA • Tfnoa: 948 637 594

CASA OSTIZ
 ZAPATADENDA • TABAKODENDA
 LIBURUNDENDA • PAPERTEGIA
 Parrokia 17 • DONEZTEBE • T.F. 948 450 289
 costiz@telefonos.es
TUCKLAND
 HUNTING
 TWICE COMFORTABLE

ILEAK

Udaberri honetan melenak egonen dira furi-furian


Ile ditziratsu eta zainduak nornahiren begiradak bereganatzen ditu normalki. Zenbaitetan ilea hondatu egiten da edo ditzira galdu dezake, baina bere indarra berreskuratzea ez da ezinezkoa. Hainbat manera daude ileari ditzira gehiago emateko.

Guztion ametsa da ile osasuntsu eta bizia edukitzea. Ile ditziratsu batek itxura atsegina emateaz gain, goizero-goizero ilea txukun paratzea errazten du.

Ileari ditzira emanaz, aurtengo udaberrian gehien nabarmenduko diren koloreak zein izanen diren galdu dugu **Doneztebeko Lilura ileapaindegian**. Gutti batzuk omen dira kolore berriekin ausartzen direnak: *“guttik segitzen dute moda, beti bada norbait ausartzen dena eta kolore ezberdinak gustuko dituzena, baina gehienek, betiko koloreen aldeko apostua egiten dute”*.

Elizondoko Kris ileapaindegian ere garai batean kolore biziak erabiliagoak zirela aitortu digute eta metxa edo ile-sortetan gorri indartsuak, laranja, morea eta abar hautatzen zituela jendeak. Orain, berriz, kolore naturalak dira nagusi, ile-sortekin kontraste haundiegirik egin gabe. Eta udaberri honetako orrazkera zein izanen ote den? *“Melenak”, Berako Duue ileapaindegiaren* hitzetan. *“Era guzietako melenak ikusiko ditugu: boop estiloa (melena zuzenak), simetrikoak (gibeletik motzak eta aitzinetik luzeak)...”*

Gizonezkoetan ere joerak gero eta adierazgarriagoak dira. Bakoitzari ongi doakion ile-mozketa, kolorea edo orrazkera zehaztea zaila da. Halere, ilea motza dutenengan ongi definitutako mozketak ikusiko ditugu; eta luzeagoa dutenengan melena zaindu eta basatiak. Hori bai, sorbaldatik aunitz beheitirago ez.



telefono gida berritzen hasiak gara!

publizitatea sartu nahi baduzu, 948 63 54 58ra

lilura ileapaindegia

Rosa Seminario, 17 - DONOSTIA
Telefono: 948 451 961

Gizon eta emakumeentzako
Modo-modako kolore eta mozkera

duue ileapaindegia estetika

BERA 948 631493 (Donostia) 948 630309 (Bermeo)

Kris ileapaindegia

Giltxaurdi kalea, 14
ELIZONDO
948 580 025



MERCHE MODA HOMBRE

Serapio Mujika, 11 - 20302 IRUN - Tel: 943 612 626



- *Giovani Valdi*
- *Sandra Sellini*
- *Caramelo Gala*



CAPELETTI HOMBRE

Mendibil Merkatal Zentrua - 20302 IRUN • Tfnoa: 943 624 672



Lasao

• agurrezko altzaria

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA
Tfnoa: 943 15 11 82 • Faxa: 943 15 10 98
e-posta: informacion@lasao.com



www.lasao.com

BERA

Abian da Bidasoako Bertsopaper Lehiaketaren XXI. edizioa

Maiatzaren 2a bitarte egonen da zabalik

Amaia eta Ainhoa

Zabalik dago Bidasoako Bertsopaper Lehiaketaren edizio berria, XXI.a, hain zuzen. Berako Kultur Batzordeak eta Bortzirietako Bertso Eskolak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen laguntzarekin Baztan-Bidaso inguruan bizi direnzentzat antolatu dute. Jatorrizko, argitaratu gabeko eta bertze lehiaketaren batean saritu ez diren bertsoak onartuko dira eta gaia, doinua zein neurria librea izanen da.

Lau mailatan banatu dute lehiaketa aurten ere: A maila 12 urte arteko haurrentzat izanen da; B maila 12 urteik 16 urterarte gaztetxoentzat; C maila 16 urteik 18 urte bitartekoentzat eta D maila 18 urteik goitikoentzat. Bertsoak maiatzaren 2a baino lehen bidali beharko dira Kultur Etxera. Epaimahaia Bortzirietako Bertso Eskolak izendatuko du eta sariak maiatzaren 16an emanen dira Kultur Etxean.

Perkusio ikastaroa

Ricardo Baroja Ikas-tetxeko Guraso Elkarteak apirilko astebu-



ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

Iaz hildako mendizaleak omendu ditu Arkupeak-ek Martxoaren 27an Arkupeak jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak bere urteroko gimnasia besta egin zuen Berako kiroldagian. Bera, Leitza, Goizuetan, Elizondo, Doneztebe eta Urdazubiko taldeak bildu ziren, eta iaz hildako mendizale lesakar eta beratarak omendu nahi izan zituzten. Unai Etxepare, Xabier Saralegi, Luis Mari Pikabea Loro eta Xabier Zubieta Zubiren senitartekoei makila, boneta, oroigarria eta lore sorta jaso zituzten. Momentu hunkigarri haren ondotik, Nafarroako Larrialdietarako Agentzia izan zuten gogoan jubilatuek, egindako lana eskertu nahian.

ruetan txalaparta, kirikoketa, adar jotzea eta tobera ikasteko tailerrak antolatu ditu. Ikasleei euskal perkusio aldea ezberdinak praktikatzen ikasteko eta aldi berean erritmoaren oinarriko nozioak bereganatzeko aukera eskaini nahi diete. Gainera, kirikoketa eta tobera jotzea eskualdekoak direnez, hauek bereziki landu eta balora ditzaten lortu nahi dute.

Jo ala Jo Elkarteak ikastaroak Ricardo Baroja Eskolan apirilaren

5, 12, 19 eta 26an eman- go ditu eta ordutegiak mailaka banatu dira. Talde txikiak egokiagoak direnez, ikasle bakoitzak bi larunbatez ikastarotik parte hartzeko aukera izanen du, egun bakoitzean ordu bat. Izena emateko Ricardo Baroja Eskolara deitu beharko dute interesatuek.

Apirilean Escena Dantza Jaialdia

Nafarroako Gobernuak eta Berako Kultur Batzordeak antolatuta,

apirilaren 5ean eta 12an eginen da aurtengo Escena Dantza Jaialdia. Larunbat honetan Tempomobile konpainiak *Inventana* obra eskainiko du 20:00etatik 21:00etara Kultur Etxean. Leku eta ordu berean, baina apirilaren 12an, Kolonbiako L'Explose Nazioarteko Dantza Garaikideko Konapiniaren *¿Por quién lloran mis amores?* ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da. Eguneko sarrera 6 euro kostako da eta bi eguneko bonoa 10 euro.



PERTSONAIA
Julen ZELAIETA

Nafarroako Bertsolari txapelkun berria

Martxoaren 15ean Elizondoko Lur dantza- lekuan jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean nagusitu ondoren, Julen Zelaieta herritarra dugu Nafarroako txapelkun berria. Faborito garbirik egon gabe, sailkatutako bertsolarien arteko lehia handia izan zen eta lehen bost bertsolarien arteko tartea 17 puntutakoa bakarrik izan zen, hagitz txikia. Dena den, guztien artean beratarra nagusitu zen, 418 puntu lortuta, Jon Barberena elizondarraren eta Julio Soto gorritarraren aitzinetik. Txapela eskuratuta, pozik dago Julen, baina hemendik aitzinera ere lanean segitzeko gogo. Aldizkariko 3. orrialdean Juleni egindako elkarrizketa bat irakurri ahal izanen duzue. Zorionak eta segi horrela!

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

ERREKALDE
PLATER KONKURTAK
DANTZAK
Ongi pasa bestaki
TFNOA: 948 630 259 BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESAKA

Osasundegia handitu eta zerbitzu berriak eskainiko ditu aurten

Jose Felix Aletxak hartu du Oningo Floresek utzitako zinegotzi kargua

Aitor AROTZENA

Urte aunitz daramazkete Bortzirietatik Lesakako Osasundegia handitzea eta zerbitzu gehiago izatea eskatzen. Orain, Udaletik baieztatu dutenez, aurten egi bihurtuko da Osasun Zentroaren handitze hori. Otsailaren 18an jaso zen Herriko Etxean Osasunbideko Lehen Arretako Zuzendariak egindako eskaera ofiziala. Eskaera horretan, osasundegi ondoko lur eremueta 500 metro koadroko lur-eremua uzteko eskatzen dio Nafarroako Gobernari, eraikin hori handitu ahalizateko. Anpliazio honek 300 metro koadro izanen ditu beheko solairuan.

Bai proiektua prestatzea bai obra egitea Nafarroako Gobernuaren kontura izanen dira osorik. Gero ere gehiago handitzeko eta zerbitzu gehiago eskaintzeko modua izatea kontuan hartuko da diseinua egiterakoan.

Herriko Etxetik aipatu dutenez, 0 eta 3 urte arteko haurrei Arreta goiztiarra, emakumeari arreta, Gizarte laguntzailea, psikiatria, erizaintzak eta fisioterapia

peuta zerbitzuak eskaintzeko modua izanen da.

Herriko Etxeak eskerrak eman nahi izan dizkie Bortzirietako Osasun Kontseiluko kide diren eta izan diren guztiei. Nafarroa Baiko parlamentariak ere goraiatu dituzte Herriko Etxetik, eurek lagundu baitzuten Parlamentura joaterako orduan eta legegaldi honetan Bortzirietako Osasundegia aurrekontuetara aurkeztu zutelako.

Oninek zinegotzi berria

Jose Felix Aletxak hartu zuen martxoaren 14an Jose Mari Floresek «*arrazoi pertsonalengatik*» utzitako zinegotzi kargua. Jende aunitz bildu zen batzar aretoan eta tentsio-uneak izan ziren. Izan ere, jorandakaren urteko udal hauteskundeetan legez kanpo utzitako botuak kontuan hartuz, ANVri zegozkion bi zinegotzi karguetako bat betetzen zuen Floresek. Haute-tsi independentisten ustetuz, «*aukera ona zuen Oninek egitan Alderdien Legearen kontra egin eta udaletxeko egoera normalizatzeko, baina lehengo bidetik jo du*».



ARGAZKIA: GURUTZE PIKABEA

Beti Gazteko neskek azpitxapeldun Euskal Herriko sokatira txapelketan

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketaren azken jardunaldia herrian jokatu zen martxoaren 15ean. Aitzinetik egindako jardunaldietan erabakia gelditu zen txapeldun nor izanen zen. Honela, mutilen 560 kilokoan, Abadiño izan zen txapeldun, bigarren posturako lehia estua izan zuten Berriozar eta Amaiurren aitzinetik. Emakumeen 480 kilokoan, Gasteizko Badaiotz izan zen txapeldun, Beti Gazte eta Oiartzungo Girizia gibelean utzita. Halere, Lesakan izan zen emoziorik, txapelak eta dominak banatu aitzinetik, Beti Gazteko neskek omenaldia eskaini nahi izan baitzieten beraien prestatzaile lanetan aritu diren lau mutilei, Paxkual Tabernari, Oskar Telletxea igantziarrari, Iñaki Igoari eta Joxean Mujikari. Neskek lore-sorta eta txapel bana eman zieten eta hortaz gain, aita izan berri den Paxkuali, Beti Gazteko sokatira taldearen kamiseta tiki bat ere eman zioten opari.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Mitxelena-Rodriguez irabazle frontenis txapelketan

Ibai Mitxelenak eta Iñigo Rodriguezek irabazi zuten Batzoki elkarteak hirugarren urtez antolatutako Bortzirietako frontenis txapelketa. Martxoaren 15eko finalean 30-23 irabazi zieten Diego Martinez eta Xabi Maritxalarri.



ETXALAR

Santiago Mitxelorena eta Gaston Lestuzzi txapeldun Larraburuko Magra Txapelketan

Igande honetan egingen dute Jubilatutako Elkartearen urteroko Batzar Orokorra

Joseba eta Nerea

Martxoaren 15ean jokatuko ziren Larraburuko Magra Txapelketak mus eta partxiseko finalak. Santiago Mitxelorena eta Gaston Lestuzzi izan ziren museko txapeldunak eta Prudentxio Elizalde eta Jabier Irisarri azpitxapeldunak. Partxisean, berriz, Asun Elizalde eta Birjina Arburuak irabazi zuten. 24 lagunek hartu zuten parte txapelketan, eta 16 lagunek partxisean. Urtero bezala, finaleko egunean egin zuten sari-banaketa eta, nola ez, ondotik, afaria. Txapelketa hau akabatu orduko, Udaberriko Sari-kebarekin hasi dira.

Etxalartarrak Euskal Herriko mus txapelketan

Martxoaren lehenbizian hasi zen Euskal Herriko VI. Mus Txapelketa. Iparra-Hegoa elkar-teak antolatuta, herri aunitzetan ari dira aste hauetan hordagoka eta tartean, etxalartarrak parte hartzen ari dira. Mar-



ARGAZKIA: TTUPI-TTAPA

Arantza, Igantzi eta Etxalarko haurren topaketa

Martxoaren 12an Igantzi, Arantza eta Etxalarko eskoletako haurrek urteroko topaketa egin zuten Etxalarren. Goizeko 11etan hasi zen eguna, Arantza eta Igantziko haurrei ongi etorria eginez. Segidan, Sanbhu taldearen pailazo-ikuskizuna ikusi zuten. Bi pailazoen gorabeherak ikusteaz gain, ikasle, irakasle eta gurasoek ikuskizunean parte hartzeko modua ere izan zuten. Junkal Altzuguren eskolak irakasleak erran digunez, topaketa hauen helburua hiru eskoletako neska-mutikoen arteko harremana sendotzea da.

txoaren 14an jokatuko zen Herriko lehenbiziko kanporaketa, eta Jose Luis Irisarri *Matxine* eta Marttin Sanzberro izan ziren irabazleak, Nerea Mitxelorena eta Nagore Ansalasi irabazi ondotik. Hortaz, *Matxine* eta Marttin dira herriko ordezkariak txapelketa honetan.

Joan den larunbatean, martxoak 29, Leitzan jokatuko zuten hurrengo kanporaketa eta ondotik, Seguran izanen da finala apirilaren 5ean. Oraindik bidean daude, baina suerte pixka batekin, emaitza onak lortu ditza-

kete txapelketa honetan. Animo, eta zorte on!

Larraburuko Batzar Orokorra

Igande honetan, apirilak 6, egingen da Larraburuko urteroko Batzar Orokorra. 12:30ean paratu dute hitzordua egoitzan

eta, beti bezala, aitzineko urteko kontuak, aurtengo aurrekontuak, eta junta-berritzea planteatu-ko dira. Jose Jabier Zubietak aurten beteko du urtea lehendakari lanetan.

Abstentzio handia hauteskundeetan

Martxoaren 9ko Estatu espainiarreko hauteskunde orokorretan abstentzioak %50a gainditu zuen Etxalarren. 643 laguneko zentsotik 310ek bozkatu zuten, eta 333k ez. NaBaik 147 botu eskuratu zituen, duela lau urte baino 16 guttiago. UPNk 5 botu beheiti egin zuten eta 86 eskuratu zituen. PSNk 12 goiti egin zituen eta 52 lortu. IU 6 boturekin gelditu zen.

Bataio bakarra aurten

Iturraldeko Bordako Gixane Telletxea Irisarri izan da aurten bataiatutako haur bakarra. Martxoaren 23an, Bazko igandean, bataiatu zuten.

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat
pentzurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

Javier Manterola
Tehniko instalazioak
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 - BERA

LEGARRA
ESKOLAKO MATERIALA
PRENTSA
Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

bentamiguel
denda, jatebrea eta ostatur
Gingil zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdaitegia
Ibardingo Lepoa • © 948 631 209

ARANTZA

Beñat Mitxelena pilotariak Frontisekin profesionaletan debutatuko du laster

Euskal Herriko klub arteko buruz burukoa eta Elgoibar eta Lizarrako txapelak jantzi ditu

Nerea ALTZURI

Sasoian dago Beñat Mitxelena pilotari gaztea. Gainera, azken egunetan jakin dugunez, laster, bere eskuineko eskuko mina sendatzen zaionean, profesionale-tara jauzia egingen du. Orain arte, hala ere, bertze garaipen ugari esku-ratu ditu azken hilabeteetan. Martxoaren erdialdean Mallabian (Bizkaia) Lehen Mailan jokatutako Euskal Herriko klub arteko txapelketako finalean 22 eta 12 irabazi zion Paz Zigandako Azanza pilotariari. Berako Gure Txokoa Elkar-tearen izenean ari da eta txapelketa ezin hobea egin du. Finalerdiak Mar-kinan eta Beran jokatu zituen eta bi partidatan ere 11 eta 12 tanto at-ara zizkieten aurkariak.

Bertzalde, garaipen bide honetan, Lizarra eta Elgoibarko 22 urtez az-piko txapelketetan ere txapeldun izan da. Zor-ionak beraz, Beñati, eta debut egunaren zain g-el-dituko gara.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Mitxelena, Euskal Herriko klub arteko buruz buruko txapela soinean duela.

Bertzalde, Gure Txo-koarekin baina Ohorez-ko Mailan, Joseba Pika-bea bertako gaztea eta Xabier Elizalde ituren-darra binakako txapel-ke-tan aritu dira. Bikote-ak ez zuen erdietsi fina-lera ailegatzea, Lemoan eta Beran jokatutako par-tidetan 22 eta 20 eta 11 eta 22 galdu baitzuen. Beraz, finalerdietan ez zuten zorterik izan Pika-bea eta Elizalde. Ea hu-

rrengo denboraldian zor-to hobea duten.

Apezetxea anaiak

Lehen ere atal hon-etan nahiz kiroletan Asier Apezetxea txi-rrindulariaren berri eman dugu. Mendi bi-zikletan lasterketa des-berdinetan jarraitzen du oraindik orain Asierrek, eta Euskadiko Opena korritzen ari da. Elite

mailako txapelketa ho-rretan bigarren lekuan doa sailkapen oroko-rran.

Bertzetik, Errioxan martxoaren erdialdera egindako Espainiako Openean 16. gelditu zen txirindulari gaztea. Oraingoan, aipatu be-zala, Euskadiko Ope-neko saioetan burube-larri ari da Asier, doze-na bat lasterketa iza-ten baitira.

Etxean bertan, or-dea, arlo berebean, la-guna badu Asierrek. Bere anaia, 22 urteko Iñigo Apezetxea afi-zionatu mailan errep-i-deko txirindularitzan ari da. Iruñeko Lizarte taldearekin lanean ari da, eta otsailean bere lehenengo denboraldia hasi zuen. Orkoiene-n bortz eguneko kon-tzentrazioa egin ondo-ren, astebururo karre-ra desberdinetan par-te hartzen dihardu Eus-kal Herri mailan.

Joan den urtean las-terketa zikloturistetan hasi zen Iñigo eta orain ibilbide berri batean ai-tzineria doa. Zaletasun izugarria piztu zaio Iñi-gori, eta anai zaharre-naren gomendioak eta guraso nahiz inguru-koen babesak jasoko ditu. Nolanahi ere, bi anaiak elkarrekin en-trenamendu nahiz prestaketa lanak elkar banatuko dituzte se-guraski. Zorte on bie-ta bereziki Iñigo txi-rrindulari hasi berriari.

udana salazones

LINE-EN-ISO 9001
LAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO
SQC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatu, erabiltzeko prest

Alkaga Ind. - Baraña, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

PAGOLA EMBUTIDOS
artesanos desde 1940

Alzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

IGANTZI

Igerilekuko lanak esleitzeko epea apirilaren 11n bukatuko da

Denboraldia ekainaren 13an hasi eta irailaren 14a bitarte luzatuko da

ttipi-ttapa

Aurtengo igerileku denboraldia hasteko bi hilabete baino gehiago gelditzen badira ere, Igantziko Udalak igerilekuko lanak lehiaketara atera ditu. 1.000 eurotan atera du zerbitzua lehiaketara eta eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 11n akituko da, eguerdiko 12etan. Egun berean eginen duen osoko bilkuran irekiko ditu Udalak pleguak, eta orduan erabakiko du zein eskaintza onartu. Hautatutakoek euren gain hartuko dute instalazioen kontrola, kudeaketa, mantenimendua eta garbiketa.

Denboraldia, berriz, ekainaren 13an zabalduko da eta irailaren 14an itxi.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko pilotariak txapelkun

Belate Elkartek antolatzen duen Nafarroako klub arteko txapelketaren finalak jokatu ziren martxoaren 16an Iruñeko Donibanen. Tartean izan ziren Igantziko Unai Telletxea eta Joseba Aldabe ere, eta alebin mailan garaipena lortu zuten. Pozik etorri ziren etxera beraien txapelarekin. Argazkian Telletxea eta Aldabe ageri dira, Luis Mari Retegi entrenatzailearekin. Irudian ageri ez bada ere, Oihan Canabal igantziarra ere han izan zen.

EUSKARA

Euskaraz mintzatzeko solas-lagun bila aurten ere

ttipi-ttapa

Hizkuntza bat ikasteko modurik emankorrena erabiltzea delako, Bortzirietako, Baztango eta Malerreka Euskara Zerbitzuek eta Euskaltegiak Solas-laguna egitasmoari jarraipena emanen diote aurten. Euskara ikasten ari direnei euren maila hobetzeko aukera eman nahi da, eta horretarako, euskaldunei deia egin da euskaraz egoki solasten eskua bota dezaten. As-tean ordu bat eskaintzeko prest egotea da eskatzen dena, eta noski, euskaraz solastea. Izen emateko: Baztanen Baztango Euskara Zerbitzura idatzi (Foru Plaza z/g, 31700 Elizondo), 948 580006 telefonoan, euskara@baztan.ani.msa.esen, edo Suin-ki Euskaltegiko 948 452471ra deitu. Bortzirietan Bortzirietako Euskara Mankomunitatean (Herriko Plaza 7, 31790 Arantza), 948 634125en, bortzi-riak@euskalnet.net en edo Euskaltegira deituz (948 637796). Malerrekan Malerreka Euskara Mankomunitatean (Merkatarien karrika 17, beheiti, 31740 Doneztebe). Bertzela, 948 451746ra edo Malerreka Euskaltegira deitu (948 451555).

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditut
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

D
I R U K I D E
Eguzki panelak ◀ ▶ Iturgintza 630 441 315
Industria mantenimendua ◀ ▶ 628 015 933
Aire egokitua ◀ ▶
Elektrizitatea ◀ ▶ 606 980 440
Zelai Industrialeko 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)

TOLDOS BAZTAN, S.L.
TOLDOAK: salmenta-konponketa, alokairua, errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-veneziarrak
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK
TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA
Teilaturako, egurrak tapatzeko...
Neurriak: 10x10 m • 10x14m • 8x7m • 5x5'7m
Bidasoa, 66 behea • BERA • Tfnua eta Faxe: 948 631006
PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

SUNBILLA

Eskolako jangelari laguntza emateko proiektua zabaldu dute Nafarroako Kutxan

Urtarrilean zabalduko jantokiak ongi funtzionatzen du

Jaione OTXANDORENA

Joan den urtarrilean jarri zen martxan herriko eskolako jangela eta momentuz hagitz funtzionamendu ona daramala erran genezake. Egutero 13 haur biltzen dira beheko eskolako bigarren solairuan eta bazkaldu ondoren berriro ere eskolan sartzeko ordua iritsi arte han egoten dira. Tarte-ka, beste zenbait haur ere joaten dira, horretarako aukera baitago nahi duen guztiarentzat.

Orain, berriz, Nafarroako Kutxaren *Zeuk aukeratzan duzu, zeuk erabakitzen duzu* proiektuen artean sartu da eskolako jangela. Be-

raz, Nafarroako Kutxako bezero guztiek eskolako jangelari laguntzeko aukera izanen dute inolako gasturik egin gabe. Horretarako Nafarroako Kutxaren bulegora joatea nahikoa da eta bertan ematen dute gainontzeko informazio guztia.

Gas naturala heritik pasatzeko eskaera

Eskualdean gas naturala jartzeko proiektu berria aurkeztu du Gas Navarra SA enpresak. Proiektu horren arabera, Lesakatik Elizondora bitartekoa izango da gasaren ibilbidea, eta



ARTXIBOA

Prozesiorik ez Aste Santuan

Aste Santuetako oporrak pasa berriak dira eta eskualdeko bertze herrietan bezala, gurean ere kanpotar jendea ibili da, herriko landetxe guztiak edo gehienak hartuta egon baitira egun horietan. Elizkizunak ere urtero bezala joan dira, baina aurtengoan eguraldi txarraren ondorioz, Ortzirale Santuan ez zen prozesiorik egiterik izan. Goian ageri den 60. hamarkadako argazki honek urte saila ditu eta ikusten denez ez du gaur egungo prozesioaren antza haundirik. Urte hartan maiordomoa Gartzibaitako Eusebio Ganboa zen eta kofradiako kandelarekin Telleriako Prudentzio Ganboa bere anaia. Eramailiak hauek dira: aitzinean ezkerretik eskuinera, Jose Ibarra, Estamoako Severiano Agirre eta Istolako Jose Arretxea. Gibe-keko aldean Alsuetakobordako Basilio Aranbillet. Prozesioan Pedro Arretxea eta Antontxo Gonzalez ere ageri dira, bertzeak bertze.

34.898 metroko luzera izanen du . 13 aldiz zeharkatuko ditu Nafarroako errepideak eta 11 aldiz Nafarroako Foru Komunitateko ugaldak. Lesakatik Elizondora bitartekoa izango da gas-

bidea eta, bertzeak bertze, Sunbillako herria eta herritarren zenbait lur ukitzen direla azaltzen da aipatutako proiektuan. Norbaitek proiektu honi buruzko informazio gehiago nahi ba-

lu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean begiratu dezake bertan azaltzen baitira Sunbillan gas naturalak ukituko lituzkeen lurrak eta proiektuaren gainontzeko xehetasu guztiak.

BEINTZAKO OSTATUA
T: 948 45 00 14
www.beintzakostatua.com
www.ubergoan.com
LITTI BEINTZALABAIN
ORBELA

ZUBIONDO
Jatetxea
agardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 475

carroba®
gastegia okidaga
Ez da estrogiara 25 bera
3400 bera (gaurerik) T: 948 03 06 99
www.carroba.net

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
Kontaketa ondegia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordue eskatu
ONDORIOGATIK INDARTZENDO:
Diabetes - Azina - Zizareak - Larri azaleko energia - Buruko mina
Oinen izerdia - Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRERKURATZEA:
Miopia - Bista ofertua - Estrabismoa - Begi lusuak-katorrak
GIHARRE ARAZOAK:
Bixkartzia - Artritis - Erreuma - Artritis - Lumbalgia - Bihurdurak - etab
Telefona: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 - IRUN

APARAN, S.A.
BROKOLALIA eta ZURAK
- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...
Tel: 948 458 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

MALERREKA

Malerrekako Gazte Eguna egingen da larunbatean Donamarian

Hitzaldiak, herri kirolak, bertso bazkaria, kontzertuak... izanen dira

ttiipi-ttapa

Malerrekako Gazte Asanbladak antolatuta, Gazte Eguna egingen da Donamarian larunbatean, apirilak 5. Goizean goizetik hasita hainbat ekitaldi izanen dira:

- 11:00etan *AHTri buruzko hitzaldia*
- 12:30ean *herri kirolak*.
- 14:30ean *bazkaria* Xabier Silveira, Alazne Untxalo eta Iker Gorosterrazu bertsolariekin. (Sarrerak Doneztebeko Ekaitza ostatuan salgai, 15 eurotan).
- 18:30ean *Batukada* Gaztetxearen alde.
- 20:00etan *txalaparta*.
- 21:00etan *kontzertuak*: Erru gabe, Kalapite, Borrokan, Banda Batxoki, Titadine, Kaskezur. (Kontzerturako sarrerak salgai 8 eurotan ostatu hauetan: Donamariako ostatuan, Doneztebeko Ekaitzan,



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabier Mendioroz margolariaren erakusketa Iruñean
Xabier Mendioroz Doneztebeko margolariaren akuarela lanak ikusgai daude Nafarroako Medikuen Elkargoko Fundazioan (Iruñelo Baja Navarra etorbidea, 47). Erakusketaren inaugurazioa martxoaren 26an egin zen eta apirilaren 25a arte zabalik izanen da, astegunetik goizeko 10etatik gaueko 10etara. 16 urterekin, bere lehengusua den Jose Mari Apezetxea margolari ezagunarekin hasi zen lehen arrastoak egiten Mendioroz eta 50 urte beranduago, bere lanak ikusgai paratu ditu.

Elizondoko Intzan, Leitzako Torrean, Lesakako Arranon eta Berako Katakun).

Kinto bestak apirilaren 19an
Urteroko ohiturari hu-

tsik egin gabe, kinto bestak egingen dira aurtien ere Malerrekan. 1970 eta 1990 urteen artean sortutakoek heldu den apirilaren 19an Donezteben kinto bestak izanen dituzte.

Horretarako aitzinetik izena eman beharko da, eta horretarako Titi ostatura jo edo bertzela, 639 928363 telefonora deitu (Nekane) beharko dute interesatuek.

KIROLA

Indurain Fundazioaren laguntza kirolarientzat

ttiipi-ttapa

Indurain Fundazioak urtero Nafarroako kirolari afizionatu onei eta entrenatzaileei banatzen dizkien bekak eman zituen martxoaren 13an. Eskualdeko kirolariei dagokienez, kirol olinpikoetan, Beintza-Labaiengo Idoia Mariez kurrenak 4.800 euro jasoko ditu, Espainiako jabalina jaurtiketa txapelketan bigarren izateagatik. Skeet olinpikoan, Lesakako Fagoagatarek hainbat laguntza hartuko dituzte: Itsasok lehen postua eskuratu zuen Espainiako txapelketan eta 3.000 euro hartuko ditu; Jone ahizpa zaharrena bigarren izan zen txapelketa berean eta 2.400 euro hartuko ditu eta Antonio aitak bosgarren izateagatik 1.500 euro hartuko ditu. Antoniok bertze 750 euro hartuko ditu Itsasoren entrenatzailea izateagatik. Judoan, Doneztebeko Noelia Ariztiak 1.800 euro hartuko ditu, 23 urtez beheitiko Espainiako txapelketan bigarren izan ondok. Bere prestatzailer Oskar Mindegaiere 450 euro eskuratu ditu. Olinpikoak ez diren kirolarietan, Agurtzane Obregozo Iruritako errugbi jokalariek 900 euro eskuratu ditu, Europako txapelketan hirugarren izan ondok.

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA LINDURRENBORDA

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA LINDURRENBORDA
Tobleria suvia • LESAKA Tobleria suvia • LESAKA
948 402121 • 626 404317 948 637212

30 BEKO
LOKALAKO BERRAZKARITZA

Frain Auzoa • LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

Xirgill

Aldate 1 • BERA
Tfnoa: 948 637 408

ZJ
Zalain
jatekua - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa 2/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

ITUREN

Larunbateko argazki erakusketarekin hasiko dira Kultur Egunak

Abenduan bertan behera utzitako Kultur Egunak apirilean egingen dira

Arkaitz MINDEGIA

Abenduan egitekoak ziren Kultur Egunak bertan behera gelditu baziren ere, Ibintza Kultur Taldeak apirileko asteburuetarako hainbat ekitaldi prestatu ditu. Larunbat honetan, apirilak 5, zabalduko da Kultur Egunetako egitaraua, Jagoba Manterola argazkilariaren erakusketarekin. Iturengo argazki izanen dira ikusgai, zaharrak nahiz berriak.

Apirilaren 12an, larunbata, Herriko Ostuan bertso afaria izanen da Xabier Amuriza, Jon Barberena eta Aitzol Barandiaran bertso-lariek. Izena emateko zerrendak harategian eta ostatuan jarriko dituzte. Eta azkenik apirilaren 18an, ortzirala, talo jatea izanen da eta ondotik kantaldia Oiarzungo Oinutsik taldearekin.

Ander Erasunen marka ahalegina Igan de honetan, apiri-



ARTXIBOA

Dantzariak berriro lanean Inauteriak pasa ondotik atsedendaldi tiki bat hartu zuen Iturengo dantza taldeak. Orain, ordea, berriz hasi dira lanean. Apirilaren 1ean indartsu hasi ziren herriko bestetako saioa prestatzen.

lak 6, marka ahalegina egingen du 17 urteko aur-tiztarrak. Doneztebeko frontoian 20 kanaerdiko erdibituz marka ofiziala ezartzen saiatuko da, eguerdiko 12etan. Egiten duen saioa Nafarroako eta Euskadiko Herri Kirol Federazioak kontrolatua iza-

nen da, *doping* analisi eta guzti.

Otsailaren 24an aposturako deialdia egin zien 19 urtez azpiko edozein aizkolari-ri. 16 kanaerdikotara 6.000 euro jokatzeko prest azaldu zen, eta martxoaren 7rako hizordua jarri zuen To-

losako Kantabriko ostuan. Ez zen inor azaldu apostua egiteko in-tentzioarekin, beraz, desafioa bertan behera gelditu zen. Hori dela eta, orain marka ahalegina egitera aterako da, hagitik momentu onean ikusten duelako bere burua.



PERTSONAIA

Xabier ELIZALDE

Garfe pilota enpresarekin profesionaletan debuta egin du

Xabier Elizalde Oskoz 23 urteko herritarrak profesionaletarako saltoa egin berri du. Joan den martxoaren 16an Garfe pilota enpresarekin debuta egin zuen Briviescas herrian, Bur-gosen, eta irabaziz ekin zion gainera profesio-naletako ibilbideari. Al-tzugarai alandozta aitzinean zuela 22 eta 17 irabazi zieten Capellan II.a eta Aitor Elkorori. Gaztea da oraindik Eli-zalde eta ibilbide luzea du aurrez aurre. 40. orrialdean berari egin-dako elkarrizketa ira-kurtzeko aukera izanen duzue. Gure aldetik, zorterik onena opa dio-gu.



AMAIYR altzariak

- Bainugela erakusketa berria
- Estilo guztietakoak
- Aukera zabala

SUKALDEAK ETA PARETA-ARMAIRUAK

Rosa Seminario 13 • DONEZTEBE
Tel.: 948 450 400

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

32. kanalean ikusten da orain Donezteben eta inguruan

Argibide gehiago: 948 63 54 58

MALERREKA-LEITZALDEA

INGURUMENA

Herrietako gabeziak konpontze aldera lehentasunak zehaztuko dira

Diagnostiko fasearen ondotik, neurriak zehazten hasiko da Agenda 21

ttipi-ttapa

Malerrekan zein Leitzaldean aitzinera segitzen du Agenda 21 egitasmoak. Bi kasuetan beharrak eta gabeziak aztertze lehen fasea, diagnostikoa, bukatu dute eta orain emaitzak aztertu eta etorkizuneko planifikazioa egiteko oinarriak zehaztuko dira. Hau da, ekintza plana prestatzen hasiko dira: hobetzeko arloetan oinarrituz, ekintzez osatuko plana eginen dute.

Inkestak eginez ekin zituzten Agenda 21 proiektuari, eta Terra-Prometeako teknikariek horiei begira eman ondotik, foroak egiten ibili dira Malerrekan eta Leitzaldean. Azkena otsailean egin zuten: 28an Malerreka-koek eta 26an Leitzalde-koek.

MALERREKAN

Azken foro hartan ekonomia eta herrietako eta eskualdeko kudeaketa izan zuten solasgai Malerrekan. 16 lagunek hartu zuten parte.



ARTXIBOA

Mallerrekan egindako Agenda 21eko bilkuretako bat, inkestaren ondorioak jakinarazi zituztenean.

Ekonomiari dagokionez, eskualde bezala, plan estrategiko ekonomiko orokorra falta dela aipatu zuten. Lehen sektorea mantendu behar ko litzateke, eskualdeko kalitatezko produktuen komertzializazioa hobetuz. Baserritarren lana ere saritu behar ko litzateke bildutakoen iritzi. Industria arloan, lurra falta dela eta azpiegiturak eta komunikazioak ere hobetu behar direla erran zuten. Turismoari begira, eskualderako zein turismo mota nahi den ze-

hazteko garaia dela nabarmendu zen, eta zerbitzuetan zenbait arloetan profesionalizazio eza sumatzen dela ere bai.

Udal eta eskualdeko kudeaketari dagokionez, bertzeak bertze, Malerrekan identitate sentimendu sendorik ez dagoela aipatu zuten.

LEITZALDEAN

Hezkuntza izan zen landutako gaietako bat. Bertzeak bertze, alor horretan inplikazioa gero eta eskasagoa dela azpimarratu zen, baita 12

urtetik goitikoentzat hezkuntza eskaintzan gabezia dagoela ere.

Osasun eta gizarte zerbitzuetan, Leitzako osasun zentroa ttikia dela eta hobetu behar dela nabarmendu zuten, baita osasun harrera ere eskasa dela ere. Horrez gain, eguneko zentro eta zahar-etxe baten beharra azpimarratu zuten.

Kultura, kirola eta euskara izan ziren azken foroan mintzagai izan zituzten bertze gai batzuk. Hala nola, Leitzan Kultur Etxerik ez dagoela aipatu zuten bildutakoek, eta zineak eta kiroldegiak konponketak behar dituztela. Goizuetan, berriz, ez zinerik, ez liburutegirik ez dagoela azpimarratu zuten.

Azkenik ekonomia izan zuten hizpide. Bertze gauzen artean, eskualdeko ekonomia gartzeko planaren beharra izan zen ondorioztatutako beharretako bat.

Arano, Areso, Goizuetan eta Leitzako 18 lagun elkartu ziren foroan.

Oihaneko zuhaitzen 15 mintegi sortu ditu Gobernuak

ttipi-ttapa

Nafarroako Ingurumen Departamentuak oihaneko zuhaitzen 15 mintegi eratu ditu. Horretarako aukeratu diren lekuen artean, batzuk gure eskualdean daude, ingurumenean balio handia dutela iritzita: Belaiberrri inguruan (Aritzakun, Baztan); Malgorra inguruan (Zubieta); San Juan Xarren (Igantzi); Txarutako Erreka eta Itxundegi-Igurin aldean (Donamaria); Aranburun (Gaztelu eta Donamaria); Ortzaneko borda eta Telleriako borda inguruetan (Beintza-Labaien), Urdanola eta Agerregi aldean (Zubieta). Horrez gain, Ezkurran, Eratsun, Saldiasen, Zubietan eta Elgorriagan ere bertze mintegiak eratu dira, baita Bertizaranan ere, Bertizko Bagola aldean.



Kalbiosu

- Biomasa eta Pellet Kalderak
- Biomasa Hornidurak

ETXENBITZAK, LANTEGIAK, IGERILEKUA... ENERGIA GARBIA
% 40 KO DIRU AURREZENA, DIRUAGUNTZA ALKERAREKIN

Tfnoa: 628 225 977 - Martin Urkua, 52 - ORDINOZ - NUGAIN

kalbiosu@gmail.com

LAGUNTZAK

Hiru urte arteko seme-alabak dituzten ama langileentzat laguntza deialdia

Apirilaren 30ean bukatuko da eskaerak egiteko epea

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak hiru urte arteko seme-alabak dituzten ama langileentzako laguntza deialdia zabaldu du aurtengo eratean. Nafarroako Aldizkari Ofizialean martxoaren 12an argitaratu zuen. Apirilaren 30a izanen da eskaerak egiteko azken eguna, eta tramitazioa eskualdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetan edo Osasun Zentroetako gizarte langileekin egin beharko da.

Aitzineko deialdian Gobernuaren dirulaguntza jaso zuten ama langileek etxean jasoko dute aurtengo deialdian izen emateko eskaerorria, datuekin osatua. Hartara, amak eta bikoteak eskaera sinatu



ARTXIBOA

Hiru urte arteko seme-alabak dituzten ama langileei dago bideratua laguntza.

—eta datuetan okerrak baleude horiek zuzendu— eta Familiaren, Haurren eta Kontsumoaren Zuzendaritza Nagusira bidali beharko dute. Sakelekoaren zenbakia edo helbide

elektronikoa gaineratzea ere gomendatu dute Gobernutik, eskaera ongi jaso dela jakinarazteko.

Laguntza lehen aldiz eskatzen dutenek, berriaz, aipatutako ez gain,

euren datuen berri eman beharko dute.

Laguntza jasotzeko baldintzak hauek izanen dira: 2007an Nafarroan erroldatua egotea; 2007ari dagokion errenta aitortpena Nafarroan

egin izana; 2007an 3 urte baino guttiagoko seme-alabak bere kargu zituela egiaztatu; norbere kontura edo berzere norbaitentzat joan den urtean lan egin zela egiaztatu eta guttienez hilabeteko bortz egun osoz lanean aritu zela frogatu; Gizarte Segurantzaren edo Lan-Mutualitatearen kotizatu dela egiaztatu eta familia osoaren zerga-oinarriaren muga ez pasatu.

Familia osoaren zerga-oinarria 26.000 euro baino guttiagoa baldin bada, 150 euro kobratuko dira hilabete bakoitzeko. Aitzitik, zerga-oinarria 26.000 eurokoa edo 40.000 euro azpikoa baldin bada, hilabetean 100 euro jasoko dira.

Pitti
eskabariak
Tel: 616 513 491
Mendiakidea etxea, 34 ZUBIETA

www.ttipi.net
ERREZETA BILDUMA
tradiziozko errezeta gozagarriak

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ehetik
AULKI JASOTZAILAK

Añorgatik 14
Tel: 943 372 870
Fax: 943 372 870
Fax: 943 365 586
behetik@behetik.com
20018 DONOSTIA

GOIZUETA

Gurasoentzako hitzaldi gehiago eskainiko dira apirilaren 10ean eta 14an

‘Hiritartasunerako heziketa’ eta ‘Elikadura haurtzaroan’ landuko dituzte eskolako jangelan

Esteban AROTZENA

Hurrengo ostegunean, apirilak 10, eta astelehenean, apirilak 14, Guraso Eskola izeneko hitzaldi kanpainaren barrerako beste bi saio burutuko dira. Lehenengo *Hiritartasunerako heziketa* gaiarekin, Carmen Nietok emanen du gaztelaniaz. Bigarrena, berriz, Ane Miren Urangaren esku egonen da *Elikadura haurtzaroan* gaitzat hartuta. Hau euskaraz izanen da. Orain artekoak bezala, eskolako jangelan burutuko dira bi saio hauek ere, arratsaldeko 3etatik 6:30era bitarte.

Fermin Antonio Apezetxea kalea

Bereziki Fermin Antonio Apezetxea kaleko bizilagunei zuzendutako oharra kaleratu berri du Udalak. Dagoeneko martxan dauden lurzoruen eta argindarra-

ren berritze lanak beste hilabete eta erdi inguru luzatuko dira eta horretarako kalea libre uztea beharrezkoa omen da ahalik eta eragozpen gutxien sor daitezen, bai lanean ari direnentzat, bai bizilaguentzat ere.

Okerrak zuzentzen

Azken bi aletan argitaratutako beste hainbeste berri osatu eta zuzendu beharrean gaudu. Lehenengoan, esan, inauterietako musikaren gastuen heren bat (1.174 euro) Gazte Asanbladak subentzionatu duela, Udalak eta Umore Onak bezalaxe. Bigarrena kanposatuko ordenantzei buruzkoa da. Hilobitako hilarriek 60x100 zentimetro neurtu beharko dituzte gehiezin, eta ez 50x60, aurreko alean esan genuen bezala.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Beste hiru zapel gehiago

Aimarren beste final handi baten atarian, herriko pilotari gazteak zapelen bilduma loditzen ari dira gelditu gabe. Martxoaren 15ean buruz buruko finalak jokatu ziren Zizurren eta ttikien mailan Antton Apezetxeak 16 eta 12 irabazi zuen. Iker Salaberriak, berriz, umeak, 16 eta 14 irabazi zuen. Hurrengo egunean, Belateko finalak jokatu ziren Iruñeko Donibane auzoan. Hemen Ander Apezetxeak eta Iker Salaberriak ordezkatu zuten Umore Ona eta eurenztat izan zen umeen mailako zapela, 18 eta 16 irabazita. Gaiarekin bukatzeko, esan, Oier Apezetxeak Malerrekako finala jokatu zuela martxoaren 7an Madariagarekin, 17 eta 22 galduz Jaunarena eta Berjeraren aurka.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Herriko neska kantuan

Ainhoa Zabaleta eta Oihane Zugarramurdi herriko bikotea Nafarroako Haur Kantari Jaialdiko azken saioan izan zen martxoaren 16ean Iruñeko Gaiarren. *Topa dagigun* abestia kantatu zuten eta ausardiaren aipamena jaso zuten.

Non jantzi zure barnealdea

Comedias, 8-10
IRUÑEA

BIDEAN

LEITZA

Leitzalarreko natur ondarea babesteko lanei ekin die Udalak

Nafarroako Kutzaren Zuk aukeratu, zuk erabaki ekimenean proiektu hori atera da aurrera

Joseba URKIOLA

Orain aste batzuk, Nafarroako Kutzaren Zuk aukeratu, zuk erabakiekimenean Udalak proposatutako proiektuei laguntzeko aukera zegoela iragarri genuen. Bada, aurrera atera den proposamena Leitzalarreko gune bereziak kontserbatzearena izan da.

Udalak Aitzmurdiko pagadia eta Izaieta babesteko lanei ekin dio. Aitzmurdiko pagadiari dagokionez esan, urteetan nahikoa utzita egon ostean, bertako pagoak marratu eta babestuko direla. Behin pagoak moztu eta behar bezala ezarrita, Aitzmurdin ibilbide bat egingo da.

Izaietan, berriz, due la hamarkada bat hasitako proiektuari luzapena eman zaio. Landare espezie ugarietako sendotasun eta interesgune handiago bat emate aldera, zaharkitua geratu den landare espezieen iragarpen taula atondu, zubi berriak eraiki, bidexka hobetu eta zuhaitz berriak txertatzeko asmoa dago.

Horrez gain, Leitzalarre osoko zuhaitz, landare, espezie eta gune bereziak babestu eta mantendu nahi dira.



ARTXIBOA

Ekitaldi ugari Emakume Langilearen Egunean

Leitzako Bilgune Feminista, Ikasle Abertzale eta Gazte Asanbladak ekitaldi ugari antolatu zituzten Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean harira. Antolatzailak hilaren 7an ere ekitaldi ugari egin zituzten: Bilgune Feministak Torrea ostatuan Jardunaldi Feministen inguruan erakusketa antolatu zuten eta Ikasle Abertzaleak-ekoek hezkuntzaren egungo eredu patriarkalaren mugak salatzeko asmoz, 150 bat ikasleekin egingako hezkidetza tailerra egin zuten. Larunbatean, hilak 8, herriko txoko guztietatik barna, bizikleta eta txilibituez lagundurik martxa aldarrikatzaile bat burutu zuten. Ondoren, *Eredu patriarkal honek itotzen gaitu* lemapean kontzentrazioa egin zen. Egunari behar bezalako amaiera emateko, Atakabeltza Gaztetxean bertso afari autogestionatua egin zuten.

Kontsumitzaile Elkartearen hitzorduak

Irache Nafarroako Kontsumitzaileen Elkarrekin datozen hilabetetan zein egunetan izanen den herrian jakinarazidu: apirilaren 2an eta 16an kontsumitzaileentzako bulegoak zabalik egongo dira, baita maiatzaren

7an eta 16an eta ekainaren 4an eta 18an ere. Ordutegia 10etatik 13etara izanen da. Doako zerbitzu hau jasotzeko, 012ra hots egin behar da.

Aurrera Pilota Eskolak bi txapel

Aurreko hiruhilekoan bezala, bigarrenean ere,

Nafarroako Jokoetan Aurrera Pilota Eskolakoek garaipenaren ildotik jarraitu dute. Zehazki, bi izan dira martxoaren 14an ekarri zituzten txapelak.

Mikel Sagastibeltza Lasarte eta Ander Garziarenak osatutako bikoteak 18 eta 12ko emaitza lortu zuen txapel bat.

Mikel Hernandezena eta Xabier Jaunarenak, berriz, 18 eta 15 irabaziz bestea. Iker Sagastibeltza eta Ibai Azurmendi bikotea ere finalean izan arren, ezin izan zuten garaipena etxeratu. 18 eta 10 galdu zuten.

Estropadantza

Hirugarren urtez, Amazabal Institutuko ikasle eta irakasleek era berezian hasi zituzten Aste Santuko oporrak. Bertiko kirol lehiak alde batera utzi, eta institutuko ikasle batzuek herriko zine aretoan gorputza eta musika landuz jaialdi berezia plazaratu zuten. Aurtengoan, estropadak izan dira inspirazio iturri eta hau tarteko, *Estropadantza* goiburua ezarri zioten ekitaldiari.

Areto Zaharreko trapezoida iragarri ziren taldeek udan Euskal Herriko uretan hain ezagun egiten diren traineru bat ordezkatu zuten. Bakoitzak musika desberdinaz lagundurik, dantza bat eskainizuen. Aurtengo ideia nagusia soinketako irakasgaitik sortua izan da eta arlo hori erabili zuten, eskolatik kanpoko orduz gain, martxoaren 18ko saio berezia prestatzeko.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iñarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

ola
SAGARDOTEGIA
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegiko menua
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

ttipi
ttapa
(0034) 948 635458

ARESO

UEMA n sartzea erabaki du Aresok

Hala onartu zuten azken udal batzarrean

Juana Mari SAIZAR

Aresoko Udalak euskaraz funtzionatzeko konpromisoa hartu du. Azken udal batzarrean Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzea erabaki zuen Udalbatzarrek. Horrela, Udaleko funtzionamendua euskararatzen eta euskalduntzen lagunduko dute, hainbat zerbitzu juridiko baitzute eta horrelako lanetan aritzen baitira. UEMAren barrenean egoteko kuota bat ordaindu behar da, baina kultur ekitaldi eta abarren dirulaguntzak eskaintzen dituzte.

Onsaloren beste garaipen bat

Unai Onsalo pilotariak beste txapel bat jantzi berri du, Euskadiko klubetako txapelketakoa, 22-7 irabazita. Partida polita egin zuen hasieratik, ongi jokatu eta nahiko erraz, gainera. Momentu honetan geldirik dago Biharko Izarren Txapelketan mina hartu baitzuen ukalondan, nahiz eta partida hura ere irabazi, Kantxo lagunarekin. 15 egungeldirik egon beharko du, baina txapelketan partida asko gelditzen direlako itxaropentsu dago.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Gazteak sagardotegian

Bazko igandean, eguraldi txarrari aurre eginez, herriko gazteak sagardotegira joan ziren arratsalde pasa, bazkaria aitzakia hartuta.



Haurrak zinean

Bazko asterako mendi irteera antolatua zuen Guraso Elkarteak umeekin, baina eguraldiak baltete lagundu ez zuenez, film bat ikusi eta ondoren merienda egin zuten. Argazkian ikus daitekeen bezala, nahikoa gozatu zuten bildutako guztiek.

ARANO

Xabier Legarreta seigarren Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean

Kanporaketetan finalean baino gusturago aritu zen

ANSA

Pasa den martxoaren 15ean Elizondoko Lur Aretoan jokatu zen bertsolari finalean aritu zen Xabier Legarreta aranoarra. Lurreko «lurrikarak» astindu gabe aritu zen bertsotan eta 6. postua lortu zuen.

Txapelketan puntuazioei erreparatu, ez zen bereziki tarte handia egon bertsolarien artean. Final estuan Lega-

rretak 397 punturekin ez zuen lortu gailentzerik. Saioan garaile izan zen Julen Zelaietak 418 puntu eskuratu zituen, beraz, lehen aipatu moduan ez zen tarte handirik egon.

Aurreko txapelketan hartutako atsedena diaren ondoren berriro ere finalean bertsoakera txukunaz jardun zuen. 11. txapelketa eta 8. finala izan da Xabie-

rentzat eta batzuetan besteetan baino egun eta zorte hobez aritu da, baina beti txukun. Esaterako, martxoaren 15eko saioan zortziko nagusian eta bai txikian ere ale ederrak utzi zituen temple onez.

Berak esan digunez, kanporaketetako saioetan, gusturago aritu zen finalean baino. Saio horietan ere izan zituen bertso aipagarriak. Txa-



ARTXIBOA

Xabier Legarreta aranoarra final aurretik jokatu-tako saio batean.

pelketa txukuna egin duela esan daiteke, eta hori ostegunero Hernaniko bertso eskolako ki-

deekin Aranoko Udaleteko ganbaran egin dako entseguen fruitu izan daiteke.

BAZTAN

Udal ordezkarien ordainsariak baliogabetu ditu Nafarroako Auzitegi Administratiboak

Udaleko Gobernu Batzordeak helegitea kontentzioso-administratiboa paratuko du

ttipi-ttapa

Nafarroako Auzitegi Administratiboak baliogabetu egin ditu Baztango Udaleko ordezkarien ordainsariak. Joan den urteko irailaren 3ko plenoan Udalak hautetsien ordainsariak zehaztu zituen, eta baztordeko delegatu izateagatik gehiago kobratzea hitzartu zuten. Agintaldi honetan Nafarroako Auzitegi Administratiboan eta epaileek aintzat hartu dute helegitea. Auzitegiaren uste-

tan, erabakia «arbitrarioa» da, eta «batzuk gehiago kobratu ahal izatea ez dago justifikatua». Martxoaren 3an eman zuten Auzitegiak erabakiaren berri.

Baztango Udaleko Gobernu Batzordeak, bere aldetik, helegite kontentzioso-administratiboa paratuko duela iragarri du eta bere jarraitzaile «gogor» defendituko duela.

Alkatearen etxea auzitan

Virginia Aleman alkatea egiten ari den etxea epaiketetan sartua dago aspaldian. Elizondoko herritar batek aurkeztutako helegitearen bidez, Auzitegi Administratiboak baliogabetu egin zuen 2005eko abenduan Udaleko Gobernu Batzordeak etxea egiteko emandako baitmena. Aipatu herritarra



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Amaiur hirugarren Euskal Herriko txapelketan

Akitu da Euskal Herriko goma gaineko txapelketa. Azken jardunaldia Lesakan jokatu zen martxoaren 15ean eta Amaiurko taldea ere han izan zen. Tiraldi guztiak irabazita, azken saioan Amaiur izan zen onena, Berriozarko eta Abadiñoeko taldeen aitzinetik. Baina sailkapen nagusian, Amaiur eta Berriozar berdinduta gelditu ziren, eta kitarakoa, desentpatua, jokatu zutenean Berriozarrek irabazi zizkion bi tiraldiak. Hartara, azkenean, Abadiño eta Berriozarren ondotik hirugarren gelditu ziren baztandarrak.

alkatearen auzotarra da eta etxeak Udal-Planean exijitzen den sei metroko distantzia ez duela errespetatzen adierazi zuen bere garaian.

UPN alderdiak, bere aldetik, epaiketetan diru publikoa erabili izana leporatu izan dio Alemani. Orain, berriz, Baztango Udalak auzian parte hartzea erabaki du «ebazpenak aurrekariak eragin ditzakeelako eta alkateari gertatu zaiona edozein herritarreri gertatzen ahal zaiola» irizita.

Baztan Rugby Taldearen besta

Baztan Rugby Taldeak antolatzen duen gaupasa apirilaren 12an izanen da, ohi bezala, Larrainzarren, Ultzaman.

21:30ak aldera, zikiro afariari emanen zaio hasiera eta ondotik, kantu zaharrak eta bertze sorpresak izanen dira. 00:30etik aitzinera gaupasa izanen da Jalisko Band taldearekin eta goizaldera, Lur Djotak ariko dira, Lur dantzalekuaren laguntzarekin.

Zikiro jaterako txarrelak dagoeneko salgai daude eta apirilaren 9a bitarte Baztanen, Intza, Futbolin eta Goizalde ostatueta eta Ultzaman, Eltzaburuko Ostatuan, Autzako ostatuan eta Orgi jatetxean egonen dira. Aipatzekoa da 380 txartel saltzen direla afarirako, baina lehenbailehen erostea komeni dela, urtero jendea afaltzera ezin joanez gelditzen baita. Dena den, afalondoko giroa ere ziurtatu dute antolatzaileek.

Maderas
GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tablerokoak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Iñaki Alzuiet margoak
Fotodak - Berronak
Dekorazioa (estuko, bolakurak...)
Pintura - Lakatua eta barnizakua kalitate
Kamioa Eliza - Landak Autza - 31711 URDAGUBI
Telefonoa: 659 862 417

MENDIALDE
Jatetxea
Tel: 948 453 050
N-121-B, 66 km
T. AMAIUR

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

BAZTAN

Almandozko Jauregia zaharberrituko du Udalak Gobernuaren laguntzarekin

167.000 eurotik gorakoa da proiektuaren aurrekontua eta erdia Gobernuak emanen du

ttipi-ttapa

Baztango Udalak Almandozko Jauregia zaharberrituko du. 167.266,13 euroko proiektua onartu du horretarako baina erdia Nafarroako Kultura departamentuak bideratuko du, 83.633,07 euro, zehazki. 2008ra begira Nafarroako eraikin historiko eta artistikoak mantendu eta zaharberritzeko egindako deialdian onartu du laguntza Gobernuak eta hori otsailaren 15ean izan zen.

Lurdetxoko Lezea konpontzen

Joan den martxoaren 11n hasi ziren Lekarzoko kolegioaren parte den Lurdetxoko Lezea konpontzeko lanak. Euriteen eta Baztan erreka

uraren eraginez aspaldian nahiko egoera kaskarrean zegoen eta azkenean berritu egingendute. 2003az geroztik, kolegioa Nafarroako Gobernuaren esku dago, baina bere garaian, kaputxinoen esku egon zenean, bertzeak bertze, mezak, komunioak eta ezkontzak egiteko hagitzen erabilia zen.

Kolegial ohien azken aldizkarietan ere egoera kaskar hori aipatzen da. Baina horrez gain, zaharberritzeari buruzko hainbat planteamendu ere agertzen omen dira. Horien artean, ostalaritza eskola, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren baitako albaitaritza eskola, hizkuntza eskola eta lau izarreko hotel baten proposamenak agertzen omen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan Ikastolakoak zuhaitzak landatzen
Urteroko ohiturari segituz, Baztan Ikastolak zuhaitz landaketa egin du aurten ere. Aldi honetan martxoaren 16an egin zuen Intziriko lepoan. Baztuk oinez, bertzeak autoz, ikastolako irakasle, guraso eta ikasleen artean 200 bat lagun inguratu ziren Intziriko lepora. Guztira 100 haritz landatu zituzten, eta egunari behar bezalako segida emateko, ikastolara jausti eta gosari eder bat egin zuten. Heldu den urtean ere esperientzia errepikatuko dutela adierazi digute Baztan Ikastolatik.

POTTOKI
Baztanberrri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfnoa: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com
Astelehenerdik
larunbatara:
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Irarte karkia
ELIZONDO
Tel: 948 581 807 - 948 581 853

Carlos
Garaikoetxea
Etxenike
abokatua
Tfnoa: 948 581 468
Mug.: 630 354 818
Santiago, 58 2C
ELIZONDO

BAZTAN
zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK
Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
T. 948 580 289 • F. 948 452 367
M. 649 438 210

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

ESKUALDEA

Aste Santuaz geroztik klaustroa zabalik dago erakusketetarako

Egunero irekia egonen da 13:00etatik 19:00etara

Margari eta Koro

Turista andana era kartzen duten herriak dira Urdazubi eta Zugarramurdi eta Aste Santu hauetan ere halaxe izan da. Eguraldiak aunitz lagundu ez bazuen ere, bi herrietako txokoak bisitatu zituen kanpoko jendeak: Museoa, lezeak, errota, klaustroa... Urdazubin, hain zuzen, Aste Santuarekin batera abiatu zituzten hemendik aitzinera klaustroan egiten diren margo eta eskultura erakusketak. Artisten lanak aldatu egiten dira noizean behin, baina beti ere, artista euskaldunen obrak paratuko dituzte ikusgai. Gainerakoan, egunero 13:00etatik 19:00etara zabalik egonen da erakusketa.

Erakusketa Sorginen Museoa

Lehenago ere aipatu izan dugu Zugarramurdiko Sorginen Mu-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Berako Musika Eskolako bisita Zugarramurdira

Martxoaren 12an Berako Musika Eskolako ikasleek bisita egin zuten Zugarramurdira. Musika Eskolako ikasle bakoitzak bere musika tresna ekarri zuen eta denen artean arras kalejira polita egin zuten karraketan barrena. Gero Museoko auditoriumean kontzertu bat eman zuten eta ondotik antzerki txiki bat Zugarramurdi eta Urdazubiko haurren laguntzarekin. Besta behar den bezala finitzeko, guztiei merienda bat eskaini zien Guraso Elkarteak. Goiko argazkia herrian egindako itzulian guraso zein ikasleei ateratakoa da.

seoko azkeneko pisua gauza desberdinak antolatzeke erabili izan dela. Oraingo honetan

margo erakusketa baterako baliatu da. Berako margolaria den Juan Carlos Olaetxeak

bere kuadroak erakusgai izan zituen martxoaren 15etik 30era bitartean.

Baztango Udala eta Santiago Bideko Lagunen Elkarteak elkarlanean

ttipi-ttapa

Baztango Udalak eta Urdazubi eta Baztango Santiago Bideko Lagunen Elkarteak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Martxoaren 27an sinatu zuten Baztango Udaletxeko Ganbaran eta akordio horren bitartez, Udalak Berroetako Eskola zaharreen egokitutako aterpea Urdazubi eta Baztango Santiago Bideko Lagunen Elkarteari utziko dio datozen 20 urteetarako, erromesei babesa ematearren. Baztango Udalaren izenean Virginia Aleman alkateak sinatu zuen hitzarmena eta elkarlearen izenean Pepe Fernandez d'Arilas lehendakariak.

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zugarramurdi errep. 3. km
URDAZUBI

LA VILLA
JATETXEA
IGANTZI • Tfno: 948 63 12 90

MARTIKO
Martiko
Pol. Zelai, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hastebetea adituak eta antzekoak

DENDA
GUSTUZA
ASTURLENITIK
ORTIZALERA
8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

BAR-OSTATVA MON
ZATOZTE TRAGOA EDATERA

ESTANCO - TIBICO DENDA
ANZEN-BORDE
VRDIX - VRDZVBI

EUROPA - MAILA

lanbideheziketan

- TEKNOLOGIA-BERRIKUNTZA
- NAZIOARTEKO PROIEKZIOA
- ENPRESARI EGOKITUA
- LANA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

AURREINSKRIPZIOA EGITEKO EGUNAK

ERDI MAILA ETA GOI MAILA

Martxoaren 31tik Apirilaren 7ra



Nafarroako
Gobernua

SENPERE

Gelditu gabeko euriak eta ibaien goratasunak beldur pixka bat sortu du berriz herrian

14 kontseilari berri jarri dira lehen aldikotz herriko kontseiluan

Franck DOLOSOR

Azken egunetan, gelditu gabe egin duen euriak beldurra sortu du berriz ere herritar anitzen artean. Lerro hauek idatzi direlarik Urdazuri ibaia aski gora zen Urguri aldean eta Ibarrunen baina suhiltzaileek ez zuten oraino ateraldirik egin. Prefeturak alerta horia piztu zuen martxoaren 27an. Dena den, orduan baino gorago ikusi izan dira urak eta uholderik gertatu gabe. Aintzirak ere usaian baino maila altuagoa izan du azken egunetan. Iazko bi uholderik gogoan, beldur pizka bat sumatu da herritarren artean. Oroitzapen txarrak oraino gogoan duen Urguriko familia batek bi gau bederen hotelean pasa ditu.

Bessonart auzapez

Martxoaren 9ko herri bozen ondotik, herriko le-

hen kontseilua 14an bildu zen andere auzapezari kargua eraberritzeko eta 8 auzapez ordezkari izendatzeko. 50 senperterrek parte hartu zuten lehen kontseiluan, hauen artean ziren, beritzeak bertze, Mixel Lahet Juzan, berriki arte lehen axuanta izan dena, eta Patrick Jacquault, zerranda batetik bertze baterat pasa dena eta ororen buru kontseiluan sartu ez dena. Duda bat izan ondotik, pozarengatik seguraski, Bessonartek bere hautagaitza presentatu zuen eta 21 boz alde izan zituen auzapez izateko bigarren aldikotz. Abertzaleen zerrendako bi lagunek xuri bozkatu zuten eta Nousbaumen listako lau kontseilariak ez zuten bozketan parte hartu. Nousbaumen zerrandako ordezkari zuten Anne-Marie Daugareil andereak dimititu baitu. Benoit Es-



Martxoaren 14an bildu zen lehen aldikotz herriko kontseilua eta Christine Bessonart izendatu zuten auzapez.

ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

taynou ibarrundarrak, zerrandan bortzgarren tokian zenak, hartu du bere tokia.

Bertzalde, Senpere Egun eta Bihar taldeko bi ordezkariak, Jef Bederede eta Joana Haranboure, hiru urtez egonen dira kontseiluan, geroberen tokiak utziko dizkiete hirugarren eta laugarren tokian ziren Christophe Pinaquy eta Eliane Galagarrari. Lehen kontseiluan tentsio giroa sumatu zen doi bat. Nousbaumen oroitarazi zuten andere auzapezak boz emaileen %39aren sustengua baizik ez duela. 10 senperterretik seik nahiago izan dute bertze zerranda bat bozkatu edo etxean egon. Abertzaleek gehiago entzunak eta errespetatuak izatea galdetu zuten azken 7 ur-



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

40 urteko kintoen bilkura

Aurten 40 urte bete duten senperterrek beren biltzarra egin dute berriki.

teetan ez baitzuen hori egin auzapezak, beren ustez. Azkenik, Bonnehon jaunari ez zaio gustatu Haranboure euskaraz mintzatzea. Bonnehon ez zen ohartu Haranbourek euskaraz erran zuela minuta bat lehenago Bederedek fran-

tesez erran zuen gauza berbera.

27 kontseilariaren artean 14 berriak dira. Lehen bilkuran lau mintzatu ziren euskaraz, Dominique Iliart, lehen axuanta, Brigitte Rychenbusch eta abertzaleen zerrandako bi ordezkariak.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA

300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

EGUNERO IREKIA

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA

Banarta, 2 - Alkaleja industrialdea

LESAKA (sarrera Beratik)

Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SARA

Battit Laborde auzapez izendatu dute

Dutournier, Jauregui, Arotzarena, Errandonea eta Urbistondo izanen dira bere axuantak

Xan HARRIAGUE

Azken hauteskundeetan ateratako zinegotziek Battit Laborde Geroko Sararen zerrendaburua izendatu zuten auzapez joan den ortziralean zortzi egindako bilkuran. Hamasei lagunek beretzat bozkatu zuten eta hiruk zuria. Henri Dutournier izanen da lehen axuanta eta arloka bertze lau izendatu dituzte: Jean Mixel Jauregui diru kontuetan, Pierre Arotzarena gizarte-ekintzetan, Pettan Errandonea laborantzian eta Mixel Urbistondo kultura eta ondarean. Auzapez berriaren izendatzeak arreta handia sortu zuen, eta herritar frango hurbildu zen Herri-

ko Etxera. Heldu den ortziral ilunabarrean berri bilduko dira hainbat batzorderen osatzeko.

Laborde zerrenda izan da hauteskundeetan irabazle nagusia. Lehen itzulian bere zerrendatik 12 hautetsi pasatu ziren, Pierre Arotzarena (893 botu), Battit Laborde (868), Jean Mixel Jauregui (864), Pierre Indaburu (836), Marie Helene Oronoz (833), Pantxo Barneix (816), Henri Dutournier (811), Frederic Barrenetxe (793), Christine Sorhouet (792), Mixel Urbistondo (772), Pettan Errandonea (767) eta Monique Soudre (756). Gaineratiko hautagaiek ez zituzten izan beha-



ARTXIBOA

Xoko txapelketa

Hilabete honen hastapenean hasiko da aurtengo Xoko Txapelketa. Usaian bezala, bortz mailatan banatuko da, eta izena emateko egun batzuk gelditzen dira 05 59 54 22 06 zenbakira deituz. Parte-hartzea 25 euro kostako da, eta txapelketa ongi joanez gero, finalak uztailean jokatuko dira. Argazkian joan den urteko irabazleak ageri dira, antolatzaileekin finalen egunean.

rezkoak ziren botoak lehen itzulian pasatzeko, eta beraz, bigarrena aurkeztu behar izan zuten.

Geroko Sara zerrendatik gelditzen ziren zazpi hautagiak aurkeztu ziren, eta Segidaren zerrendako bertze zazpi. Bigarren itzulia pasatzeko lehen zazpitan egotea aski zen pasatzeko. Kasu

horretan auzapez berriaren zerrendatik bertze bortz pasatu ziren, Jerome Barrenetxe (759), Patricia Sahastume (753), Christine Mendionde (737), Jean Mixel Iratzoki (724) eta Dominique Roudier (723). Segida zerrendatik bertze bi lagun pasatu ziren, Annie Londaitz (693) eta Fabrice Iparagirre (691).

SENPERE

Hatsaren Poesia eguna igandean

ttipi-ttapa

Hatsa Elkartearen ekimenez, Hatsaren Poesia Eguna egingen da igandean Senperen. 10. edizioa du hau eta hala, iragan 10 urteotan Euskal Herri oso-tik hurbildu zaizkion 230 olerkari eta olerki tailerretan parte hartu duten 780 haur eta gaztetxo omenduko ditu, guztien artean idatzitako 2.350 olerki goraiapatuz. Oxtikenean, 12:00etan emanen zaio hasiera egunari, olerkari azken poesia bilduma aurkeztuz. 13:30ean Larraldean olerki bilduma idatzi dutenen artean zikiro jatea egingen da eta 16:00etan leku berean *Barneko burbuilak* ikuskizun poetikoa eskainiko da. Ondotik, berri, olerkiak irakurriko dira.

edredoi-azal nordikoak
albornozak
mantelak
edredoi nordikoak
kuxinak
ohe estalkiak
maindireak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2008ko udaberriko kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



SORTZEAK

Mattin Perez Tapia, Berakoa, martxoaren 7an.
Matias Petancor Escalada, Berakoa, martxoaren 12an.
Lander Indakoetxea Zubialde, Zubietakoa, martxoaren 9an.
Leire Ariztegi Antxordoki, Lesakakoa, martxoaren 3an.
Laida Taberna Urria, Lesakakoa, martxoaren 4an.
Ander Urbizu Gartziaarena, Leitzakoa, martxoaren 11n.
Xanet Buldain Esnaola, Leitzakoa, martxoaren 13an.
Ekain Elizalde Mena, Arizkungoa, otsailaren 25ean.
Leire Uribe-Etxebarria Iturriria, Erratzukoa, otsailaren 26an.
Lucia Baldanta Arruiz, Elizondokoa, martxoaren 3an.
Ganix Alunda Uhalde, Arraiozkoa, martxoaren 4an.
Gabriel Unax Molinero Urriza, Elizondokoa, martxoaren 6an.
Saioa Perotxena Danboriena, Irurita-koa, martxoaren 16an.
Ainhize San Juan Taberna, Arantzakoa, martxoaren 6an.
Unai Lizasoain Etxebertz, Donamaria-koa, martxoaren 16an.
Mathis Lacase Colin, Sarakoa, martxoaren 13an.



EZKONTZAK

Mauricio Jabier Troncoso Ramirez eta **Sara Zabaleta Telletxea**, Argentina eta Leitzakoa, martxoaren 18an Leitzan.
Jabier Rodriguez Arraiago eta **Izaskun Urrutia Apezetxea**, Leitzakoak, martxoaren 18an Leitzan.
Mikel Leiza Etxeberria eta **Ana Maeztu Villanueva**, Arantzakoa eta Iruñekoa, martxoaren 8an.

HERIOTZAK

Jose Angel Torres Gamio, Arizkungoa, martxoaren 5ean, 46 urte.
Laura Miral Usun, Elizondokoa, martxoaren 6an, 88 urte.
Jose Ramon Fagoaga Markina, Berakoa, martxoaren 5ean, 59 urte.
Jose M^o Sagastibeltza Saralegi, Leitzakoa, martxoaren 6an, 79 urte.
Cristobal Olaetxea Sagastibeltza, Leitzakoa, martxoaren 6an, 91 urte.
Rosario IrigoienAzkona, Berakoa, martxoaren 7an, 79 urte.
Tomasia Etxamendi Larrea, Elizondokoa, martxoaren 7an, 95 urte.
Ascencion Baraibar Ezkurdia, Leitzakoa, martxoaren 7an, 67 urte.
Mercedes Sarratea Mutuberria, Doneztebekoa, martxoaren 8an, 89 urte.
Basilia Tomaria Aldaz, Elizondokoa, martxoaren 8an, 91 urte.
Ana M^o Oiaregi Lekaroz, Doneztebekoa, martxoaren 10ean, 79 urte.
Rafael Barriola Zabaleta, Leitzakoa, martxoaren 11n, 77 urte.
Francisco Sansiñena Telletxea, Arantzakoa, martxoaren 14an, 79 urte.
Joaquin Solana Herreros Etxaniz, Berakoa, martxoaren 14an, 79 urte.
Francisca Telletxea Arotzena, Lesakakoa, martxoaren 16an, 95 urte.
Miguel Iratzoki Larralde, Lesakakoa, martxoaren 18an, 83 urte.
Estefania Barbesugi Bikondoa, Arizkungoa, martxoaren 19an, 88 urte.
Manuel Larretxea Mitxelena, Berakoa, martxoaren 20an, 77 urte.
Maria Zubieta Iparragire, Etxalarkoa, martxoaren 22an, 81 urte.
Antonia Ariz Urrutia, Elizondokoa, martxoaren 23an, 94 urte.
Rosalía Ariztegi Azpirotz, Aurtizkoa, apirilaren 27an, 73 urte.
Joseph Olhats, Sarakoa, martxoaren 16an 56 urte.
Josefa Laurenzena Barandiaran, Urdazubikoa, martxoaren 26an, 79 urte.
Clemente Iriarte Goñi, Arraiozkoa, martxoaren 27an, 81 urte.
Juan Jose Lurnagarai Saldias, Arraiozkoa, martxoaren 27an, 65 urte.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
 Maldaerreka S.L.
 Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
 IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
 ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
 SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
 SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
 Maldaerreka S.L.
 Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59
 FUNERARIA BAZTAN
 TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
 LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
 LESAKAKO TANATORIOA



**Joseba Andoni
 URDANTZ ETXEBERRIA**

1969ko apirilaren 12tik 2002ko apirilaren 2ra

VI. URTEMUGA

Udaberriak bizia ekarriz
 Zure askatasun modua gogoratzen du
 Zure ametsak buruan izanik
 Zure indarra guria egiten dugu.

Gurasoak eta senideak

MENDIA

Arantza, Baztan eta Lesakako mendi itzuliak Nafarroako lehenbiziko ibilbide luzeko zirkuituaren barne eginen dira

Igandean Altsasun emanen zaio hasiera zirkuituari

ttipi-ttapa

Aurten lehenbiziko aldiz eginen da Nafarroako ibilbide luzeko zirkuitoa. Guztira Nafarroa osoan eginen diren zazpi mendi itzulik osatuko dute zirkuitu hori eta tartean daude eskualdeko hiru: Arantzako Mendi Itzulia, Baztango Mendi Ibilaldia eta Lesakako Mendi Itzulia. Horiekin batera, Altsasuko Mendi Ibilaldia, Amezkoako Martxa, Sakana-ko Ibilaldi Handia eta Alaizko Ibilaldia eginen dira. Zirkuitoa mendi ibilaldi horien antolatzaileen ekimena da, baina aipatzekoa da, Agerra eta Tuturre Mendi Taldeak ere antolatzaileen artean daudela. Berako eta Aralarko Mendi Ibilaldiak iaz egin ziren eta bi urtetik behin egiten direlako aurten ez dira zirkuituaren parte izanen. Nafarroako Federazioa ere ekimen honen aitzindarien artean dago.

Edizio berritzaile honetan ez da sailkapenik jasoko, hasiera batean, egitasmoa nola joaten den ikusi nahi baitute antolatzaileek. Balorazioaren ondotik erabakiko dute nola segitu hurrengo aldietan. Ekimena martxoaren 12an aurkeztu zuten.

IGANDEAN HASIERA

Altsasuko Mendi Ibilaldiarekin hasiko da zirkuitua. Igande honetan, apirilaren 6an, iza-



ARTXIBOA

Duela bi urteko Lesakako Mendi Itzulian Zalainzokon ateratako argazkia.

nen da eta 42 kilometroko luzera eta 2.100 metroko desnibela izanen ditu.

Amezkoako III. Martxak emanen dio segida zirkuituari. Apirilaren 13an Eulaten eginen da eta 43 kilometro luze izanen ditu. Desnibel tikiena izanen duen itzulia izanen da Eulatekoa, 930 metro.

Hirugarren itzulia **Sakanako XIX. Ibilaldi Handia** izanen da. Irurtzen eginen da eta bi eratako itzuliak egiten ahal izanen dira. Luzee-nak 54 kilometro izanen ditu eta 2.800 metroko desnibela; laburrak, berriz, 46 kilometro izanen ditu eta 2.000 metroko desnibela.

Alaizko IX. Ibilaldia Etxaguen eginen da maiatzaren 10ean, eta 39 kilometroko luzera eta 2.000 metroko desnibela izanen ditu.

Bosgarren itzuliaren ailegatuko da zirkuitua eskualdera, **Arantzako IV. Mendi Itzuliarekin**. Maiatzaren 18an eginen da, 30 kilometro luze izanen ditu eta 1.100 metroko desnibela.

Maiatzaren 25ean **Baztango XV. Mendi Ibilaldia** eginen da eta honek 35 kilometro izanen ditu.

Lesakako XI. Mendi Itzulia, berriz, ekainaren 15ean eginen da eta hau izanen da zirkuituko azken proba. Hemen ere bi ibilbide izanen dituzte aukeran parte hartzaileek: luzee-na 33 kilometrokoa (1.700 metroko desnibela) eta laburra 21 kilometrokoa (1.100 metroko desnibela).



Berako IV. Mendi Maratoi Erdia apirilaren 13an eginen da

ttipi-ttapa

Berako Mendi Maratoi Erdiaren laugarren edizioa eginen da apirilaren 13an. Manttale Mendi Lasterketa taldeak antolatu du aurtengo edizioa ere, eta iaz bezala, 2.420 metroko desnibela egin beharko da 21 kilometroko ibilbidean. Lasterketa 9:30ean abiatuko da Berako kirodegitik,

eta 18 urtetik goitiko edozeinek parte hartzen ahal izanen du. Aurten berrikuntza gisa, medikuak izanen dira lasterketa osoan, edozer gertatu gero, berehala artatzeko. Horrez gain, erretiratzeko hiru puntu paratuko dira. Izena emateko epea martxoaren 30ean bukatzekoa zen baina 17rako 400 parte hartzaileen muga gainditua zen. Dorsalak bezperan, apirilak 12, banatuko dira Gure Txokoa Elkartean, 17:00etatik 19:00etara. Ondotik, proba buruzko informazioa emanen du antolakuntzak. Ohiko sariez gain bertzelako gehigarriak ere banatuko dira. Hala, marka hobetzen duenak (1:41:27) 300 euroko aparteko saria jasoko du. Ibardingo Bentan tarte helmuga bat ere jarriko dute eta bertatik lehena pasatzen denak 150 euro lortuko ditu. Gainerakoan, lehen hiru sailkatuek, gizonetako nahiz emakumetakoetan, 250, 150 eta 100 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren.





Xabier ELIZALDE

Iturengo pilotari profesional berria

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Aitor AROTZENA

Debutaren biharamunean, Xabier Elizalderekin izan ginen Arantzako frontoian. Izan ere, iturendarra izanagatik, ama arantzarra du eta pilotan aunitz ibili da Arantzako koadrilarekin. Gustura zegoen, profesionaletan debutatzeagatik eta, gainera garaipearekin: «Arront nerbioso hasi nintzen, baina Altzugarai lasaitu ninduen eta hasi nintzen pilotakada batzuk suelta jotzen eta gozaten. Erditik aitzinera gehiago gozatu nuen eta 22-17 irabazi genuen». Elkoro bezalako pilotari historiko baten kontra lehenbiziko partida jokatzeko ere aunitz motibatu zuen Elizalde.

Profesionalerako urratsak ez du erabat ezustean harrapatu 23 urteko atzelari iturendarra. Izan ere, joan den udan zenbait partida jokatu zituen Garfeko pilotariekin. «Garfe enpresako burua nerekin gustura zegoela ikusten nuen eta proposamen egin eta baiezkoa eman diot».

Afizionatu mailako palmaresa aipatzerakoan, aurtan, Nafarroako klub arteko txapelketan azpitxapeldun izan

da binaka eta Euskal Herrikoan finalerdietan kanporatu zuten. «Azkeneko urtea izan da onena. Nafarroako txapelketan azpitxapeldun aterara gara Zerezo lesakarra eta biek eta Euskal Herrikoan, Zerezok behatza hautsi eta gero, Pikabearekin aritu naiz. Arront gustora aritu naiz eta finalerdietan ia-ia irabazi genuen, baina azkenean galdu».

PILOTA IRAKASLE

Euskal Herriko txapelketan Oho-rezko Mailara igotzeko promozioa jokatu behar zuen orain Elizalde Gure Txokoarekin, baina profesionalerara salto egin duenez, ez du aukera hori izanen. Pilota irakasle ere bada eta eskualdeko hainbat pilotari gaztetxorekin ari da lanean han-hemenka.

«Eskuina nahiko ona dut eta pilota aunitz luzatzen dut. Ezkerrarekin ere azken urteetan ikasi dut. Nerbioak kontrolatzen ikasi beharra dut orain»

«Onenen kontra aritzea da guziona ametsa, baina lasai hartu behar dut»

• Martxoaren 16an, Garferekin debuta egin zuen profesionalerako Xabier Elizalde Oskoz, 23 urteko atzelari iturendarra. Briviescan (Burgos) jokatuako partidaren ondoren, Xabier Altzugarai almandoztarrarekin batera 22-17 irabazi zieten Capellan II.a eta Aitor Elkorori.

• Gure Txokoarekin Nafarroako klub arteko txapelketan azpitxapeldun izan da binaka eta Euskal Herrikoan finalerdietan kanporatu zuten.

• Asegarce edo Aspen ari direnen aldean gutti agertzen dira Garfeko pilotariak telebistan eta prentsan, baina horrek ez du Elizalde kezkatzen: «Ongi jokatu gero, nonbait agertuko gara».

menka. Profesionalerako hasita ere, lanbide horretan gustura segituko duela aipatu digu iturendarra.

Mutil handia eta indartsua da Xabier Elizalde eta eskuinarekin kolpe handia du. «Eskuina nahiko ona dut eta pilota aunitz luzatzen dut. Ezkerrarekin ere azken urteetan dexente ikasi dut. Nerbioak kontrolatzen ikasi beharra dut», dio. Binaka ari denean, bere aurrelariak tantoa bukatzea gustatzen zaio: «Nik dominatzen dudanean, tantua buka dezala behinik behin. Ni arront gustora aritzen naiz tantoa bukatzen asmatzen duten aurrelariarekin».

Altua izan arren, azken urteetan lau t'erdian ere gustura aritu dela aipatu digu Elizalde, «posturak ere egokiak ditut lau t'erdirako».

Binakako txapelketa nagusiaren finalerako atzelari gazte ikusteak ere ilusioa egiten dio iturendarri: «Ametsa hori izaten da beti, onenen kontra aritzea, baina ez dakit... Bi urteko kontratua dut orain, ikasten joan behar dut, lasai-lasai eta ikusiko dugu zer pasatzen den gero».

PILOTA



ARGAZKIA: ZALDUA

Malerrekako Eskuz Binakako Txapelketako finalak jokatu zituzten pilotariak, Doneztebeko pilotalekuan sari banaketa ondotik.

Malerrekako seigarren Eskuz Binakako Txapelketako finalak jokatu dira

Martxoaren 8an jokatu ziren Doneztebeko Udal pilotalekuan

A. A.

Martxoaren 8an jokatu ziren Doneztebeko Udal pilotalekuan Erreka elkarteak antolatutako Malerrekako seigarren eskuz binakako finalak. Eskualdeko pilotariek gain, kanpoko hainbatek ere parte hartu dute txapelketan eta finalean ere hala izan zen.

BIGARREN MAILAN

Goizeko lehen partidak bigarren mailako pilotarienak izan ziren. **Benjamin mailan**, Errekako bi bikote izan ziren aurrez aurre eta Iñaki Maylin eta Mikel Lanak 18 eta 10 irabazi zieten Aritz Arrieta eta Axier Baztarrikari.

Alebinetan ere Errekako bi bikote aritu ziren eta Daniel Moran eta Julien Juankorenak 18 eta

12 irabazi zieten Jon Belarra eta Jon Mitxeori.

Alebinetako buruzburuko finalean ere Julien Juankorenak 18 eta 6 irabazi zion Jon Belarrari. Beraz, bi txapel-Juankorenarentzat.

Infantiletan, Club Natacion taldeko Zuñigak eta Zugarraldeko Iturbi-dek 18 eta 6 irabazi zieten Errekako Jokin Uhalde eta Oberenako Jon Viezmari.

Jubeniletan, Errekako Xabier Carrion eta Mikel Goñik ustekabea eman eta 18 eta 3 irabazi zieten Txarutako Iraile Zestau eta Errekako Josu Telletxeari.

LEHEN MAILAN

Benjamin mailan, Arrasateko Murua eta Moron II.ak sorpresa eman zuten eta 18 eta

11 irabazi zieten Zugarraldeko Eskiroz eta Agirre II.ari. Txapelketako bikoterik onena Burlatalkoa izan arren, finalean ez zuten euren maila eman.

Alebin mailako finala Zugarraldeko bi bikotek jokatu zuten. Partida gogor baten ondotik, Novale eta Larunbek 18 eta 13 irabazi zieten Arano I.a eta Sarasari.

Infantil mailan Etxarri Aranazko Gure Pilota Elkarteko Murgiondo eta Lasak 18 eta 13 irabazi zieten Oartzungo Oiarpe elkarteko Sarasti eta Basasori.

Arratsaldean, **kadete mailako** partidarekin hasi zen lehia. Zugarraldeko Iribarren eta Etxamendik 22 eta 18 irabazi zieten Txarutako Beñat Oronoz lesakarrari

eta Imanol Juanena oiztarrari.

Jubenil mailako finalean Aurrerako Jon Jaunarena leitzarrak eta Arbizuko Josu Bergerak Goizuetako Umore Onako Oier Apezetxea eta Txarutako Xabier Madariaga urrotarraren kontra jokatu zuten. Jaialdiko partidarik onena eskaini zuten gainera, eta azkenean Jaunarenak eta Bergerak 22 eta 17 irabazi zuten.

Senior mailako bi finalak jokatu ziren segidan eta uste baino boro-roka guttiago izan zen bietan. **Bigarren mailakoan**, Errekako bi bikote izan ziren aurrez aurre: Imanol Mitxelena arantzarrak eta Unai Urrutia saldiastarrak Aritz Anguita eta Joseba Madariaga arantzarraren

kontra jokatu zuten. Urrutiak ez zuen finalerdirik jokatu eskuko minarengatik eta finalean ikusitakoaren arabera, oraindik erabat osatu gabe dago. Ez zen eroso ibili eta Madariaga arantzarra jaun eta jabe izan zen. Ez zuen pilota bat bera ere galdu. Imanol Mitxelena saiatu zen jokuan sartzen, baina ez zuen suertetik izan. Azkenean, 22 eta 3 irabazi zuten Angitak eta Madariagak.

Elite mailakoan, azkenik, ezustea izan zen. Mololo Irigoien lesakarrak eta Unai Iparragirre leitzarrak txapelketako bikoterik onena osatu zuten, baina Tolosako Aurrera Saiaz elkarteko Renobales eta Galarra 11 eta 0 aitzinetik jarri ziren eta azkenean 22 eta 7 irabazi zuten.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

HAURRENTZAKO AISIALDIA

ELIZONDO

Apirilaren 4an, 7an eta 8an, Pello Añorga ipuin kontalaria. Parte hartzaileak: Baztango herrietako eskolak, Baztan Ikastola eta San Francisco Javier ikastetxea. **Apirilaren 16an,** Gus txotxongiloak.

ERAKUSKETAK

URDAZUBI

Egunero, artista euskaldunen margo eta eskultura erakusketa 13:00etatik 19:00etara Klaustroan.

ELIZONDO

Apirilaren 22tik maiatzaren 3ra, *Ura gardena kolektiboa* pintura erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, 18:00etatik 20:30era.

ITUREN

Apirilaren 5ean, Jagoba Manterola argazkilariaren erakusketa.

AISIALDIA

ELIZONDO

Apirilaren 26an, *Aerobiton* Lur dantzalekuan, 16:00etatik 20:00etara aerobica.

ITUREN

Apirilaren 5etik aitzinera, Kultur Egunak. Xehetasun gehiago 26. orrialdean.

DANTZAK

BERA

Apirilaren 5ean, Eszena dantza jaialdia: *Inventana*. 20:00etan Kultur Etxean. **Apirilaren 12an,** Eszena dantza jaialdia: *¿Por quien lloran mis amores?* izeneko ikuskizuna. 20:00etan Kultur Etxean.

TELEBISTAKO TXOKOA



Berako IV. Mendi Maratoi Erdia ikusgai ttipi-ttapan

APIRILAREN 14KO JOKOA SOLAS SAIOAN

Laugarren edizioa izanen du aurtengo Berako Mendi Maratoi Erdiak. Apirilaren 13an egingen da eta iaz bezala, 21 kilometroko ibilbidea izanen du. Arrakasta handia izanen duela iragarri daiteke, martxoaren 30ean ixtekoa zen izena emateko epea 17an itxi behar izan baitzuten 400 parte hartzaileko muga ordurako gauditua zegoelako. **Ttapi-ttapa TELEBISTAK** ere hurbiletik jarraituko du lasterketa, bi kameraren bitartez. Lehenbiziko postuetako lasterkariekin egonen da bat, eta bertzeak leku ezberdinetako irudiak hartuko ditu. Irudi horiek apirilaren 4ko *Jokoa Solas* saioan paratuko dira ikusgai. Ho-

rrez gain, norbaitek Mendi Maratoi Erdiko irudiak DVDan eskuratu nahiko balitu 948 635458ra deitu beharko du.

ORTZIRALEAN LESAKAKO UDAL KIROLDEGIRA BISITA

Guztiz bertzelako gaia izanen da ikusgai apirilaren 4ko erreportaje, Lesakan zabaldu berri diren udal kiroldegira joanen baitira telebistako lankideak. Leire Portu kiroldegiko arduradunarekin eta Koldo Erkizia Lesakako alkatearekin egonen dira eta instalazioak hobeki ezagutzeko aukera izanen da. Horiek eta bertze hainbat kontu **Ttapi-ttapa TELEBISTAN**.

DISKAK



Txuri beltzeko amodioa
MANENT
RUNDOWN, 2008

2008ko errebelazio taldea bihurtzeko hautagaia omen da Manent eta pop elektroniko euskaldunaren derrigorrezko erreferentzia, ideiak garbi dituela dioelako soinu iradokitzaile batekin. Naturaltasun osoz adierazten dakien abeslariaren mesedegarri diren testu landuen, xehetasunez beteriko konponketen eta mugimendu ondulatzaileren popa da. RDM independente zigiluak editatu duen bere debuteko albumean, Carl Watermakek —mota eta portaera desberdineko musikari ugariarekin egindako laganatik gure lurraldeko musika ekoizlerik ezagunetako batek— egindako kolaborazioari esker soinu pertsonala lortu da. Manentek anbizio handiko proiektu musikala kaleratu du eta 10 abesti bildu ditu *txuri beltzeko amodioa* bere lan berrian.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA** (martxoaren 7tik 14ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 37,00 € (=)
Zerri gizena
1,170 € kilo. (+0,025)
Zerramak:
0,400€ Kg/bizirik. (+0,025)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,13 (-0,03)
1.koa 3,82 (-0,03)
2.koa 3,26 (-0,03)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,25 (-0,03)
1.koa 3,94 (-0,03)
2.koa 3,36 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze ttikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 228,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,08/3,18
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,00
8-10 kilokoak: 4,40/4,90


JAKIN BEHARREKOAK

Apirilaren 10etik 18ra birziklatzeko poltsa gehiago banatuko dira Bortzirietan

Etxean jasotako gutunarekin joan beharko da poltsaren bila

Bortzirietako Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen ekimenez, Bortzirietan etxeko zaborraren birziklatze-kopurua hobetzeko poltsa gehiago banatuko dira bortz herrietan. Joan den abenduan banatu zirenean 1.000 ale banatu ziren eta orain bertze horrenbertze banatuko dira. Aitzinekoan, Arantza eta Igantzin ez zuten jaso eta orain herri horietatik hasiko da banaketa. Etxalar, Bera eta Lesakan ere jasoko dute aitzineko al-dian gabe gelditutakoak.

Ikerketa soziologiko berrien eta Bortzirietan egin diren kanpagnetatik ateratako ondorioen arabera, jendeak ez ditu etxean sortzen zaizkion zaborraren zati desberdinak bereizten ez duelako horretarako edukiontzia egokirik.



NON	NOIZ
Igantzi	apirilaren 10ean (9:00-11:00)
Igantzi	apirilaren 11n (11:30-13:30)
Arantza	apirilaren 10ean (11:30-13:30)
Arantza	apirilaren 11n (9:00-11:00)
Etxalar	apirilaren 16an (9:00-14:00)
Bera	apirilaren 17an (10:00-13:00)
Lesaka	apirilaren 18an (10:00-13:00)

Hain zuzen, arazo horri aitzin egiteko asmoz dator poltsa berri-zaile hau.

Argazkian ageri den bezala, urdin, berde eta hori koloreko hiru poltsa ditu, pa-

pera edo kartoia, beira eta enbaseak bakoitza dagokion lekuan sartu dezan. Poltsak garbitu egin daitezke eta horrenbertez, luzaroan erabiltzeko prestatuak daude. Erabiltzeko ez du inongo konplikaziorik.

Ondoko taulan herri bakoitzean zein egunetan eta zein ordutan jaso behar den ageri da. Beran Eztegarara frontoira joan beharko da edukiontzia jasotzera; Lesakan Herriko Etxeko arkupe-
pera; Etxalarren Mankomunitateko bulegora; Igantzin frontoira eta Arantzan Herriko Etxeko gorape-
ra.

Mankomunitateak etxeetara bidalitako gutunean xehetasun horiek guztiak azaltzen dira, baita poltsa jasotzera gutunaren goiko aldearekin joan behar dela zehaztu ere.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Apirilaren 6an, Gartzagara ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak elkarteak.
Apirilaren 13an, Larratzura ateraldia Baztango Mendigoizaleak antolatuta.
Apirilaren 20an, Hondarribira ateraldia, Baztango Mendigoizaleen eskutik.

BERA

Apirilaren 6an, IV. Mendi Maratoi Erdia. 09:30ean abiatuko da kiroldegitik. Xehetasun gehiago 39. orrialdean.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Apirilaren 5ean, *Soziedad Alkoholika* taldearen kontzertua Lur dantzalekuan. Sarrera: 15 euro aitzinetik eta 18 euro takilan.
Apirilaren 19an, *Gose & Suga* taldeen kontzertua Lur dantzalekuan, 00:30etik aitzinera.
Apirilaren 26an, *Txutxin Ibañez* eta *mariatxiak* izanen dira Lur dantzalekuan.

BESTAK

LESAKA

Apirilaren 19an, Gazte Eguna, Lesakako Gaztik antolatuta.

DONAMARIA

Apirilaren 5ean, Malerrekoako Gazte Eguna. Egun guztian hitzaldia, herri kirolak, bertso bazkaria, kontzertuak... Xehetasun gehiago 25. orrialdean.

LARRAINTZAR

Apirilaren 12an, Baztan Rugby taldearen besta. Xehetasunak 32. orrialdean.

LIBURUAK



Ero

Jon MARTIN

ELKAR, 2008

Non dago normaltasunaren eta erotasunaren arteko marga? Eta erotasunaren eta erokeriaren arteko muga? Ertz labain horretan jolasean dabil-tza liburu honetako kontakizunak, hainbat gizon-emakumeren beldur eta irriken bitartez gizartearen beraren markurak agerian jarri. Traste zaharrak pilatzen dituen atsoa, adikzioak burmuinak nahastu dizkion gaztea, urteak betetzeari uko egin nahi dion gizon heldua? Istorio

hauetako protagonista batzuk aise sailka ditzakegu psikiatriaren arabera, patologia kliniko bat ezarri eta lasai segi, geure bidean. Bertze aunitz, berriz, itxura normalaren penan, gutako edozeinen ispilu izan litezke, baina ispilu deformatu hori ez da horren lasaigarria? Bere lehenengo liburua idatzi du Jon Martinek, estiloniztasuna menderatzen duenaren esku trebea erakutsiz, baita teknika hori narrazioan jartzeko buru azkarra ere.

GARAJEAK/LOKALAK**107 Saldu**

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

BERA. Agerra auzoan lurpeko garajea salgai. ☎948630027.

DONEZTEBE. 70m²ko bagera salgai. ☎618 881924.

GARAJEAK/LOKALAK**109 Errentan emateko**

ELIZONDO. 60m²ko lokal komertziala errentan emateko. Berogailua eta komunarekin. Komertzio bat jartzeko prestatua. Toki onean. ☎665 556422.

LURRAK/ORUBEAK**112 Saldu**

DONEZTEBE. Lur eremu urbanizatua proiektuarekin salgai, 250m². ☎617059683.

LANA**301 Eskariak**

Emakume euskaldun batek adineko pertsonekin edo bertze edozein lan eginen luke (10:00etatik 14:00etara). ☎664 545925.

LANA**302 Eskaintzak**

ETXALAR. Etxalarko Bentan egun osoz lan egiteko zerbitzaria behar da. Baldintza onak. ☎948 635000 (Jabier).

Eskualdeko **altzaridenda** batean lan egiteko dekoratzailea behar da. Salmenta arloan esperientzia izatea baloratukoda. ☎686462717.

BERA. Larunen frantsesa dakiten neska eta mutila behar dira sei hilabetez lan egiteko. ☎948 631100 (egun osoan)/948630794 (gauzez).

LESAKA. Udal igerilekuan asteburuetan sorosle lana egiteko pertsona bat behar



BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA

EUSKARA TEKNIKARI ARITZEKO LAN POLTSA

- Oinarriak lortzeko: Bortzirietako Euskara Zerbitzuaren bulegoan (Arantzako Herriko Etxean); telefonoz, 948634125 zenbakian; edo bortzirietako@euskalnet.net helbide elektronikora idatzita.
- Bete behar diren baldintzak:
 - EGA titulua edo baliokideren bat izatea.
 - Unibertsitateko titulazioa izatea, erdi edo goi mailakoa.
 - Ibilgailuak gidatzeko karneta izatea, B mailakoa berderen, baita ibilgailua ere.
- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia: 2008ko apirilaren 16ko 14:00etan, Bortzirietako Euskara Zerbitzuaren bulegoan (Arantzako Herriko Etxean).
- Probak egiteko egunak: lehenbizikoa, 2008ko maiatzaren 6an; bigarrena, 2008ko maiatzaren 9an; hirugarrena, 2008ko maiatzaren 13an. Proba guztiak goizeko 9:00etan hasiko dira, eta Arantzako Herriko Etxean egingen dira.
- Mankomunitateak gainditzen dutenen zerrenda behin-behineko kontratazioak egiteko erabiliko du, betiere puntuazioaren ordena hertsia jarraiki.
- Gainerako zehaztapenak deialdian daude.

Arantzan, 2008ko martxoaren 13an

Mankomunitateko lehendakaria
Ainara Maia Almandotz

da. Lanaldia handitzeko aukerarekin. ☎617 373246.

BERA. Katakua ostatuan zerbitzaria behar da astelehenerdik ortziralera lan egiteko. ☎661 767027.

Adineko pertsona zaintzeko eta **etxeko lanak egiteko** pertsona arduraduna behar da. ☎609 152063.

IRUN. Ola sagardotegian urte osorako neska zerbitzaria behar da. ☎639 736767.

DONEZTEBE. Neska euskalduna behar da haurrak zaintzeko. Astelehenerdik ortziralera, 11:00etatik 16:00etara. ☎687530130/699848051 (deitu 15:00etatik aitzinera).

BERA. Benta Migelen sukaldari laguntzailea behar da eguerdikoz zerbitzurako. ☎948 631394.

MOTORRA 501 Salerosketak

Golf IV TDI autoa salgai, 2000ko azarokoa, 100 CV, txuria, 5 ate, klimatizagailua, mp3a. Egoera onean. ☎620 249262.

Ford Monobolumen autoa salgai, 7 plaza eta ohaztea. Automatikoa, aire egokitua. Egoera onean eta merke. ☎620 997794.

Peugeot 406 HDI autoa salgai. Egoera onean eta ekipamendu osoarekin. ☎650 065764.

Citroan Xsara 1.9 TD VTS eta **Suzuki Santana** SJ 410 salgai. Egoera onean. ☎666 796728/948 453374 (20:00etatik aitzinera).

Xsara HDI 1.9-90 zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urriakoa. ☎650 948330.

2001. urteko **Seat Ibiza Sport** 16, 100 CV, gasolina salgai. Egoera onean. ☎661 905009.

PEDRO GARMENDIA, S.A
Tel.: 948 580 431 - 948 580 436
608 977 685 - Faxa: 948 580 973
ELIZONDO (Nafarroa)
garmendia@red.renault.es

Km 0 eta auto ia berriak
*Maximun lagun autoren hel errotzuzkaltz
Turret elia Urdet nolana OFIKI*

KANGOO BERRIA!

Argazki soilak: 4 €. Bikoitzak: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



UXE SANTEDEBAN OTXANDORENA Zubieta-rrak urtea bete du martxoaren 13an. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.



HEGOI SAN MILLAN SOBREVIELAK martxoaren 20an 2 urte bete ditu. Zorionak eta mila muxu haundi aitaxo, amatxo eta Aini-zeren partetik.



ASIER TELLETXE APEZTEGIA beratarrek 6 urte bete ditu martxoaren 30ean. Zorionak eta muxu bat familiaren eta bereziki Andonirenen partetik.



ANDONI MINDEGIA ETXEPARE aurkitarrak apirilaren 2an 9 urte bete ditu. Lesakako eta muxu bat izeben partetik zorionak eta bi muxu haundi.



Berako EKAIK martxoaren 25ean 3 urte bete ditu. Zorionak zure familiaren partetik. Muxu haundi bat. Aioo pelaiooo!!!



OLATZ ETXEPARE ELRIO beratarrek 9 urte (ze haundiala) beteko ditu apirilaren 3an. Muxu haundi bat Jone, Izaro eta familiaren partetik. Zorionak sorgintxo!



Zubietako SAIOAK martxoaren 22an 4 urte bete ditu. 4 muxu aita eta amaren partetik. Segi orain bezain mendizale eta zaindu ongi ahuntzak!



Zugarramurdiko MAIALEN ETXABE OLAGARAIK martxoaren 26an 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



ALAZNE MARIEZKURRENA SANSIÑENAK apirilaren 15ean 5 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren eta bereziki Imanol eta Uxueren partetik.



UGAITZ LARRALDE IBARRA beratarrek apirilaren 4an 9 urte beteko ditu. Zorionak Izaro, attato eta amatto-ren partetik.



EMILIO eta AINHOARI martxoaren 22an eta 30ean urteak bete dituztelako zorionak eta muxu haundi bana familiaren partetik.



KOLDO eta IKER sunbildarrek martxoaren 25ean eta 27an 5 eta 4 urte bete dituzte. Zorionak familiaren partetik.




EKHIÑE MITXELENA beratarrek 4 urte bete ditu apirilaren 1ean. Zorionak eta ongi pasa eguna familia guztia- ren partetik, bereziki ahizpa Julene eta gurasoen partetik. Muxuak printzesita!



IBON IRASTORZA beratarrek martxoaren 30ean 8 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat morrosko bihurriari.



XABIER URRTUTIA TELLETXEAK 6 urte bete ditu martxoaren 29an. Aunitz urtez Eider, atta, ama eta Elordiko familiaren partetik.




XABIER TELLETXEAK IRATZOKI etxalartarrak apirilaren 18an 6 urte eginen ditu. Zorionak eta muxuak gure gizon- boari familiaren eta bereziki Jani- reren partetik.



Soroko JOXE MIGUEL eta PAKITAK, Leitzaoko attuna eta amonak, apirilaren 4an 63 urte beteko dituzte ezkunduta. Zorionak familia guz- tiaren partetik eta segi horrela; umoretsu eta osasuntsu.



Martxoaren 26an JANIRE MARTIN GOIAK 8 urte bete ditu. Zorionak amatxi Pili eta Berako familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Lesakako JANIRE MARTIN GOIAK 8 urte bete ditu martxoaren 26an. Zorionak familia eta bereziki Naiararen partetik. Muxu haundi bat.



HAIZEA AIOROA APEZTEGIA itur- rendarrak apirilaren 6an 6 urte beteko ditu. Segi beti bezain alai eta sogin. Muxu bat aita, ama, Hodei eta Aitzen partetik.




XABIER GOIZUE- TA BALEZTENA aurtizarrak apirilaren 9an 4 urte beteko ditu. Muxu haundi bat familia guz- tiaren partetik.



Zubietako MIKELE ETXEKOLONEAK 8 urte beteko ditu apirilaren 9an. Muxu haundi bat atta, ama, Beñat eta Malenen partetik.



IRAIA 3 urte beteak dituzu. Marimatraka xamar ez tote zara zu. Etxekoaren partetik tori mila muxu, ongi pasatu eta disfruta ezazu.



JON MAZIOR Mazi Txiki urrotarrak 13 urte bete ditu martxoaren 28an. Lesakako lagunaren partetik egun ona pasa eta zorionak!

MOTORRA
502 Salerosketak

Golf TDI 1.8 T autoa salgai. 2002ko abuztukoa. 65.000 km. Xenon, mp3... Egoera onean. ☎669 916635.



Focus ST 170 urdina salgai. 62.000 km. Egoera onean, errebisioa pasatu berria. 2004koa, extra aunitz. 12.000 euro (negotziagarriak). ☎657707538.

MOTORRA
502 Tailerrak

MENDIAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE
SUZUKI (gasolina eta diesela)
MITSUBISHI (luze eta laburrak)
TURISMOAK

MOTORRA
503 Bertzelakoak

Interneten gustuko duzun atzerriko kotxe bat aurkitu baduzu, eta ekartzeko aukerarik ez baldin baduzu, guk ekarriko dizugu, eta zure izenean matrikulatuko dugu. ☎636 772310.

TALLERES SANTEDEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

AUTO IA BERRIETAN
ESKAITZA ZABALA (6-12 hilabetekoak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.
BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen Saxo 1.9 D, Renault Laguna 2.2 D, Clio Campus 1.5 DCI, Peugeot 406, Clio Confort 1.5 DCI, Megane Coupé 1.9 DTI 100 CV, Citroen C-15 1.8 D, Citroen Berlingo 1.9 D 70CV.

ANIMALIAK
601 Emateko

5-8 hilabeteko artzain zakuak oparitzeko, parasitoak kenduak eta txertatuak. ☎630 118538.

Ardi txakurkumeak oparitzeko. ☎666 433959.

ANIMALIAK
602 Salerosketak

ETXALAR. 20 erle saltzeko, Perfeccion. ☎948 635174.

Urte bateko migattua eta bi aretze jaio berri salgai. ☎948 631046.

DENETARIK
701 Galdu/aurkituak

BERA. Jamoteneako atean Ortzegun Gizen egunean 'monedero' bat aurkitu da. ☎948 630856.

DENETARIK
702 Salerosketak

Letxuga ekologikoak salgai. ☎948 393083.

BERA. 150 inguru belar far- do tiki saltzeko. ☎660785305.

LG-DVD grabagailua sal- gai, disko gogorarekin. ☎609 477277.

Antzinako egurrezko **xukadera** (platerak idortzeko al- tzaria) erosiko nuke. Berria edo bigarren eskukoa, pa- retan zintzilik paratzeko. ☎677 822248.

DENETARIK
703 Bertzelakoak

Kotxe zahar bat berehala eta luzaro mugitu gabe uzteko lekua behar da: **pabiloia, lonja...** ☎636 072732.



Muebles Telletxea

DONEZTEBE • Rosa Seminario, 12 • Tfnoa: 948 450 258 • 948 451 811



Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko
proiektua **NAFARROAKO AURREZKI KUTXAREN**

**Zeuk aukeratzen duzu,
zeuk erabakitzen duzu**

Proiektu zka.:

can 

Zure aukeraketa bide hauek erabiliz egin dezakezu:

• Clavenet, Nafarroako Kutxako banku elektronikoa • Kutxazain automatiko berrietan • Bulegoetan, CANeko kudeatzaile pertsonal batek lagundurik • Bestela, bete ezazu argitara emanen diren lerro, jarduera eta proiektu guztiei buruzko argibide materialetako galdetegia, zehaztu zure erabakia eta bidali Nafarroako Kutxara.

Lurr

apirilak 5 larunbata

★ SOZIEDAD ★ ALKOHOLIKA



23:30 15€ aurretik 18€ takillan

apirilak 12 larunbata

LUR D JOTAK | Ritxi & Nash

+ J&B
BESTA

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

apirilak 19 larunbata

90SE + SUGAN

23:30 10€ aurretik 12€ takillan

apirilak 26 larunbata

TXUTXIN IBAÑEZ Y EL MARIACHI CIUDAD DE MEXICO

00:30 8€ aurretik 10€ takillan

apirilak 30 asteazkena

MOLOTOV

00:00 18€ aurretik 21€ takillan



BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Heineken

Baztango Udala